



KULTURA JARDUNAK





ESPAÑI'AN : 12 Laurleko
ONGILLEAK : 25 »
ATZERRIAN : 17 »

YAKIN

[FRO MANUSCRIPTO]

11'gna. A R A N T Z A Z U'n - Gabonetakoa - 1960

ATEAK·ZABALIK

Nai ainbat ez bada ere, ba-datozkigu "Iritzi-billa"ren erantzunak. Ta erantzun auek dirala bide, ames zaar bat esnatu egin zaigu.

Askotan entzuna da onoko au: praille-apaizak ez dugula euskeraren alde lanik egiten, alegia. Bai ta ez. Geiago egin genezakela? Bai orixe. Baina zerbait baino geixago egiten dala ere egia da. °


Bildur giñan YAKIN'ekoak basamortuan aldarrika ari ez ote giñan; baiña ikusi dugu, Jainkoari esker, irakurleak ba-dituguna.

Gaur prakadunoi esan nai genizue-

Ke zerbait. YAKIN orainartean apaizgaiona izan
dugu, baiña zuei ere atepak iriki bear dizkizue-
gu. Ba-da gure aldizkari ontan filosofia ta teo-
logirik; ta ekonomia, mediku-jakintza, lege-ja-
kintza, ta gaiñerakoak?

Jakintza DENA bear du euskerak,
biziko bada. Atozte guziok, jakintza au osatzera.
Jainkoarren, jakintza-alor oparo ontan ez duzu-
tela lan egin esateko eskubiderik ez dezagula
izan praille-apaizok.

Zuen erantzunen zai gauzkazute.
Agur eta laisterrarte.





TEOLOGI~
FILOSOFI~
SÄILLA

ZERGATIK SIÑISTEN DUGU?

ZIURTASUN BIZIA.

Jaunari eskerrak, fededun geranok galdera oni erantzun bear gutxi izan dugu. Kristau geintxuenak, ia danak, ez lirake beren sinismena egiztatzeko gauza izango. Orrek, ordea, kristau zintzoaren fede biziari batere kemenik ez dio kentzen. Ez du esan nai orrek oien sinismena sendoa ez danik.

Izan ere ziurtasun mota asko ezagutzen ditugu. Baina oietan aberatsena ta ugariena; ziurtasun "bizia", guk berez illunpe antzean bizi dugun ziurtasuna da. Laño artean estali xamarra agertzen dala esango genuke, baiña trinko ta eraginkor.

Buru-lanez agirian jartzen ditugun ziurtasunak eta egiak izaten ez duten trebetasunez ta biziz jantzia nabaitzen dugu. Ez da agirira azaltzen, barne eragin azkarrekoa da, ordea.

Oarpenez argitaratzen dugun egia, geren mami eginda bezela daukagun egia baiño txiroago izango da beti. Argiagoak bai ba-dira, ta aditzera emateko erabidetan, formuletan jarri ditezke, ez dute, ordea, besteen indarra, bizi-jarioa ta aberastasuna. "Bizia", pentsatua baiño astunago ta ugariago beti.

Aristau zintzo geienak ba-dituzte arrazoiak beren sinismenerako; gertatzen dana da, ez diz-

kiotela arrazoi oiek adimenari eskeintzen, arek landu ta aztertu ditzan. Ori nekegarria baida, ta barne giroa zale atsegiñago. Newman'ek egoki asko diona: "guztiak dute arrazoaia, arrazoaia emateko, ordea, ez dute guztiak balio".

Kristau geienak, bada, beren erlijio edo fede gaiean, ziurtasun "bizia" dute, ez ordea, "buruz oartua".

ADIMENA TA FEDEA.

Galdetu gintezke: zer ote gera sinisdunok, sinisten ez dutenentzat? Eta gerontzat? Zearo lojika gabetuak, adimen ukatzaille?

Fedearen lojika ta egokitasuna adierazten asi baiño len, auxe esan genezake: fede gabea, fededunaren aurka ari, ta arrazoiak eskatzen dizkionean, batere lojika gabe jokutzen duala. Itxu batek ikusleari esango balio bezela: ia, jakinaz irazi neri ikusten dezula. Sinisgeak ezin guri ulertu. Ez baidu orretarako oarmenik.

Zer esan nai du fedearen arrazoaia emateak? Adimen ta lojika, fedearen aitor ta lagun dirala. Eskerrarekin batean, oiek ere lagun ditugula sinismenera iristeko.

Nire sinismenak e du adimena ukatzen, ezta bertan bera utzi ere. Adimena ta fede ederki uztartzen dira. Ez dugu fede "atzeritar" adimenean.

FEDEA ZER DAN:

Sinistea, kristau misterioa ezagutzea da. Jesukristoren eta Elizaren bidez munduari egiten dion agerkundean eta izadigaiñetik ezkeintzan Jaungoikoa arkitzea. Agerkunda ta emari onen egia ezagutu ta, adimen, naimen, biotz ta izate guztiakin egi sakon ori gureganatu ta besarkatzea. Agertzen eta ematen zaigun Jaungoikoarekin gizon osoa, eta ez adimena bakarririk, elkartzeko bat da fede.

FEDERAKO BEAR DIRANAK.

Fede bidean arkitzen dan gizonak edo bere bide mugara eltzen dijoanak, adimena, naimena ta grazia bear ditu

eginkizun nagusi ortarako. Iru altasun, iru potentzi orien elkar-lanak ernarazten dute gagan kristau sifismena.

Anima baten fedea erne, iraun edo geituko bada, fede gai onetaz adi ta ernai egon bearra daukagu.

Oso ugari dira, beren burua azaleko uskerietan, politikan edo aragi-atseginen lokarrietan naspillatua daukatenak. Nai ta naiezkoa da azalekiko buruauste txepel eta kaltegarri guzti oriek, eta noizik bein, giza-arazo bearrezkoak eta bene-benetakoak ere bai, baztertzea ta aazten uztea, garrantzi aundiagoko dan Jaungoikoaren itza ta kristau misterioa ezagutu ta egiz besarkatzeko.

Adi adi jarri ondoren, Jaungoikoaren billa ateratzea ere, noraezekoa da. Federa datozten sinisgabe geien geienak eta fede gartsuan bizi diran zintzoak, Jainko bilitzaille porrokatuak izan dira, beti. Kristau misterioaren mami jorria ezagutzen alegindu dira, beti. Eta Idazteuna, Jesukristo berbera ta Eliza bere izadigainetiko izakera ezkutuan, kondairan eta egiteko eran sarkonki ezagutzen ere ekinalean ari izan dira.

Fedea arkitzeko edo artan sakontzeko, begiratu garbia ta biotz xamurra ta tolesgabea bear, ordea. Sarritan okerrera makurtzen gaituan indar biurri ta illunak deuseztu bear ditugu.

Gero, asmo au artu: Jaungoikorik bada ta guri agertu bazaigu, berari eskeifiko natzaio, naiz-ta ori neketsu izan.

Izan ere, Kristori baietza ematen diotnak norbera ukatu bearra dauka. Ez da ba au txantxetako gauza. Federa etorri diran askorentzat, oinkada au mingarrietan mingarria izan zaie. Sifisterakoan milla gauza kutun biotzeko utzi bearra ikusten baizuten.

Eta azkenez, federa iristeko, Jaungoikoaren eskerra bear. Gure adimen eta naimenari graziak laguntzen die, aiek Idazteunean cartzen dituzten ezaugarrien izadigainetiko esanaia uler-tzen.

Fedea Jaungoikoagandik datorkigu, ta orregatik, bear-bearrezkoa dugu bere eskerra. Jainkoaren emaria da fedea.

FEDERAREN BIDEALDIAK.

Bat edo bat katoliko izatera biurtzean, bere zuzenbidearen zerzelada bat edo beste jakitearekin ez du aski. Ondo litzake galdera au egin: Federa datoztenak, zein bide jarraitzen dute orretarako?

Iru atal banatzen dituzte teologoak, izadigainetiko sinismena arkitze ortan:

1) Jaungoikoak nai duanerako egoeran bizitzea;

2) Jaungoikoak itz egin digula pentsatzeko arrazoiak aldian izatea;

3) Jaungoikoagandik datorkigularik, bere itz au onartzera beartua nagoala jakitea.

Fede gaiean ez dugu, bada, adimena ta azterketa ukatu ta baztertu bearrik. Gure erlijioak eskatzen diguna, Jaungoikoaren egia ta laguntza gogoz aitzeko anima-giro egokian eratzea da; baiña, Jaungoikoak neri itz egiten didala garbi ikusten dedanean bakarrik sinistesteke asmoz.

Elizak sinisdunak nai ditu, ta ez itxurak. Chesterton'ek bere esakera artan ain burutsu adierazten diguna: "Elizak, bertan sartzerakoan, ez digu burua kentzekorik esaten, burukoa kentzeko baizik."

Federako, bakoitzak bere arrazoiak izan bear ditu, naiz-ta sarritan, auek, argi ta zuzenbidez besteei azaltzea zail izan.

Maiz gertatzen zaiguna da onoko au: arrazoian gaudenaren zalantz izpirik ere izan ez, eta ala ere, inola ezin urkoari adierazi, argi argi, ez ideetan ta ez itzetan, gure bizikeraren edo egikeraren arrazoibideak.

BI BIDE.

Batzuek, begirada zoli eraginkor, eta biotz bide laburrez iristen dira federa. Orrela gertatu zitzaion Claudel materialista gazteari. Ondo ezagun dute guztiak ari gertatua: Bein batean, berari eman zioten lantxo bat idazteko liturji gai batzuek ezagutu bear zituala ta, literatura asmo utsez, Paris'ko Notre Dame elizan sartu zan. Eta bertan, apaizgaiak zoragarri abesten zuten "Magnificat" entzutean, sinisgeak, ustekabean "sinistu egin zuan."

Arek, biotz-maiñean ikutu zion, ta berak digunez, urratu eziñalako ziurtasunez siñistu zuan.

Paul Claudel'en siñistea bakana ta noizean beingoa bada ere, teoloji sail aldetik ezpairik gabea da. Claudel'ek, libaruetan etziran bere ar-razoiak izan zituan, ta "lumen fidei" dalako orrek eman zion egia, fede argi berberak, alegia.

Beste batzuk, ordea, adimenaren bide luzeago ta neketsuagotik egiten dute federako sarrera. Auetakoa zan Newman kardenal ospetsua. Au, urte askoren buruzko kondaira-teoloji azterketan ibilli ondoren, egun batez, katoliko bezela pentsatzen zuala oartu zan.

Inoiz ere ezin genezake esan, inork itxu itxuan fedea artu duanik; beti izan zuten arrazoiren bat sinisterra iriñteko, ori buru-bidez azaltzeko beti gauza izan ez arren.

AMAI. Baiña orretzaz gaiñera, federa datorrenak, izadigaiñetiko zer edo zer izan du lagun, Jaungoikoaganako azken oinkada ematen, beartu gabe eragin diona.

Jaungoikoa gogoz artzeko gertu egotea ez da naiko; (ta ortan ere Jaungoikoaren eskerra dugu lagun) ezta berri zerutarra ba-dala arrazoizko arkitzea ere, (ta ortarako ere Jaunaren eskerra ba-dala zifñistu genezake). Ori ere bai, baiña gaiñera, "siñistu bearrean naizala" ikusi bear dut nik, berri au Jaungoiko berberak bidaltzen didalako.

Jaungoikoaren izadigaiñetiko eragiña, azkenengo urratz ontantxe da osoena ta bearrezkoena, au emanik gero siñisten baidugu.

Jaungoikoaren eragitez ta laguntzaz urratz au ematean, osoro onartzen dugu berri zerutarra bere ondorengo guztiekin, bera ezertan ezin oker egon, eta era beran, guri gezurrik esan ezin digun Jaungoiko azkengabeagandik datorrigulako.

Orregatik, bide onetan arkitzen dan siñisgabeak, fede doai au arretaz eskatuko du. Adimen lanarekin batera otoitz egiten ez bada, ez dago Jauna billatzeko benetako asmorik.

Siñisgabeak arren eta arren egin bear du, ba, esanaz: Nere Jaungoikoa, baldin bazera, nik siñistu dezadala egizu.

Osa'tar Eusebi
Laterandarra.

LAN-SARIA AITA SANTUAREN ERAKUTSIETAN

Estu ta larri dugu gaurko gizona. Gizarte-arazo asko ta larriak ditu esku artean. Buru auste gogorrean dabiltz gizonak dana konpondu naiean. Nere ustez, beñfere ez dira gaur aina saiatu. Gizarte bizitz au jasotzeko egiten dan guzia, ezer gutxi iruditzen zaie, eta ez dute ortarako ezer ere barkatzen. Jainkoak beteko al ditu gizonen asmo txalogarri oiek.

Eta Elizak, zer egiten du bitartean? Askotxorentzat, berak ez dauka zer-ikusirik. Ori ez da Eleizari degokiona. Beste askok ba-damaiote eskubide ori. Baina galdetzen dute: zer egin du Eleizak gizarte-arazo onen alde? Batzuk borondate txarrez, geientxoena ez jakinean, baina danak egitik urruti. Eleizak gizarte-arazotan sartu bear du. Argi egin bear du; gizonak argi orren bidez joka dezaten. Eta ala egin du noski.

Gizarte arazoen artean, eta ez txikien, sariarena dugu noski. Garrantzi aundikoa Aita Santu'ek dioten bezela. Eleizak garbi itz egin digu gai ontan. Aztertu ditzagun Idazki-Nagusi edo Enziklikak.

XIII'garren Leon'ek ausarkiro ta zuzen itza egin zuan "Rerum Novarum" idazki-nagusian. Liberalismu dotriñak indar aundia zuan garai artan, eta kalte aundiak egiten ari zan. Onen aurka irten zan Aita Santua.

"Dotriña onek dionez, saria zenbataiñokoa izan bear duan nagusi ta langillen artean askatasun osokin egindako elkargo edo kontratoak erabakitzen du. Sari ori ordaintzen dun nagusiak ondo jokatzen du. Naiz urriegia izan. Elkargoak ematen dio sariari bere zuzentasuna, on izatea. Erabakitako ura ematen ez duanean bakarrik dijoa nagusia zuzentasunaren aurka. Orobat, agindutako lana egiten ez duan langilleak." [R.N. 34]. Erakutsi onen aurka altxa zan eta ezeztu zorionean. "Ezin ditek onartu oinarriak koloka dituan ditriña au. Garrantzi sundiko arrazoi bat aztu baidu." [RN.34]. Gero berak, aztutako arrazoi au erakusten digu: "Lana, bere izatez, bizitza gordetzeko naitanaiezko diran gauzak lortzeko zuzendua dago." [RN.34]. Berezkoa du lanak elburu ori. Eta elburu ori aditzera eman ondoren, Leon XIII'garrena gaiaren sakoneraino iritxi zan. "Lana bakoitzarena da. Berea du langilleak indar ori. Izadiak eman dio. Ez da, ordea, ori bakarrik. Lanaren zitua bearrezko zaio langilleari, bizitza gordeko badu. Ortara, berriz, bizitza zaintzea, izadiak beste guzien gainetik beartzen du. Beraz, lanak, bearrezkotasuna du bakoitztasunaren gainetik. Ala ez balitz, egia lioke liberalismuak. Baiña oso besterik da egia bearrezkotasun ori erasten badiogu. Egiazki, bizitz gordetze ori, bakoitz eta guzion eginbearra dugu. Bete bearrak eta eskubideak batera doaz, ordea. Orregatik du gizonak bizitzako bearrezko zaizkion gauzak lortzeko eskubidea. Beartsuak, berriz, gizon geientxoenak, ezin gauz auek lortu lanaren sariarekin ezik" [R.N. 34].

Oinarriak bota ditu Aita Santuak eta sendo jarri ere. Baiñan ez da ori naiko. Dotriñak, gizonaren agintzak zuzendu bear ditu, eta noiz nun nola egin jakainarazi. Orregatik, Leon XIII'gnak. lanaren bearrezkotasun ori adierazi ondoren eta bera oinarritzat arturik, erabakitzen du txikien-sariari dagokiona. Txikien sari ortatik ez dago jesterik, nagusi-langilleak ala nai izanda ere. Zergatik gero? Lanaren bizitz-beartasuna gizonen

borondatez gainetik dagolako, eta onekin zer-ikusirik ez dualako. Beraz, zer-nai dala-ta, sari au baino urriagoa onartzera beartzen zaion langilleari bidegabekeri bat egiten zaio, eta onen aurka zuzentasunak diardu. Zein zuzentasunak eskatzen du sari au? Langilleari, beretzako bakarrik lain emango dion saria elkargo-zuzentasunaz (justicia commutativa) zor zaio. Ontan ez dago eztabaidarik.

Txikien edo bizitz-sari orrek, zenbat eskatzen du?

Gizona, bizitza zaitzera beartua dagola esan dugu. Zer esan nai du, ordea, bizitz-zaitze onek? Bizitzeko lain jatea besterik ez ote? Ori abereak ere egiten dute. Ortan ez dugu alde aundirik. Gizonak, bere izakerari dagokion eran bizitza bear du. Zein da, sabela beteta, besterik o-pa gabe, bapo zeok esaten duan gizona? Lau anka-koa izan bear ortako. Ez, ori ez da gizonari dagokion bizitza. Oso besterik da. Sariak, langilleari, gizon bezela bizitzeko lain eman bear dio. Bizitz ori zer-nolakoa izan bear duan? Ez da noski erreza danontzako egoki dan bizikera bat jar-tzea. Baiñan esan dezakegu, uts egin bildurrik gabe: gure artean askotxok daramatena baino o-bea dala, gizonari dagokion bizitza. Beeraxeago, Pio XII'garrenak, sendi-sariari buruz itz egitean ekartzen dugun testoan, argi ta garbi esaten du sariak zenbaterako lain eman bear duan.

sendi-sariaz, zer?

XIII'gn. Leon'ek, ez du sari onetaz bereziki itz egiten bere "Rerun Nonarum" idazti-nagusian. Baiña arretaz eta borondate onakin irakurtzen duten guzientzat argi dago, Aita Santu'ak eskatzen duan saria zer-nolakoa dan. Irakurri dezagun bestela 10'gn. numeroa. "Jatorrizko lege santua da au. Sendiko buru danak, er-narazi zitun semeak babestu, elikatu eta zaindu bear ditu. Jatorri berdinetik dator onako au ere. Bere gizatasuna berritu ta iraunerazten dioten semeei, bizitz ontan zoritxarretik aldendu ta itxuraz aurrera ateratzeko bideak lortu bear dizkie" [RN. 10]. Beraz, gero langillearentzat saria eskatzean, ez du langilleak bakarrik artzen, sendi-

ko buru danez baizik. Nola bete bestela, jatorriz datozkion eginbear olek? Ezin genezake pentsa, aditzera eman ditun bete-bearrentzako lain eskatzen ez duanik. Pio XII'garrenak argiago uzten digu gauza, 30.000 italiar langillei egindako itzaldian. "Sariari gauz auek eskatu bear zaizkio: sendiaren irautea, semeak osansunki elikatu ta jazteko lain, bearraineko eskola ta egokizko ezikera edo edukazio bat eman al izatea, gizonari dagokion bezelako bizitoki bat, eta azkenik, georari buruz, estu aldietako, gaixotasun eta zartzarorako kontuak atera al izatea". Ez al dago naiko garbi? Besterik legoke sari-arazo au Eleiazak erakutsiari jarrai bazitzaio.

Zein zuzentasunak eskatzen du sendi-sari au?

Eztabaida gogorra zegoen sendi-sari au goimaitasunak ela gizarte-zuzentasunak eskatzen ote zuan. Pio XI'garrenak erabaki zuan. "... berritze auek gizarte-zuzentasunak eskatzen ditu. Baita ere gizon guzieren sari au ematea" [Q.A. 32]. "Ezin esan gizarte-zuzentasunekikoak betetzen dirala, langillek beren eta sendiaren bizia osatu ezin lezaketen bitartean. Ortarako lain ematen duan sari bat ez duten bitartean" [DR. 52]. Argi ta garbi esaten digu zein zuzentasunak eskatzen duan. Ontan ez dago eztabaidarik. Baiña ez ote du baita ere elkargozko-zuzentasunak eskatzen? Emen ere ez daude bat autoreak. Asko, geientxoena nik uste, dira elkargozko-zuzentasunaren alde daudenak. Auen aldetik gaude gu ere. Izan ere, saria bakarki arturik elkargozko-zuzentasunak eskatzen duala baiezteko ekarritako argumentu guzik erabilli ditezke sendi-sariaren alde. Egokizko gauza iruditzen zaigu gainera, nagusi, geintxoena oraindik, langillearen egoera obeagotzea jotzen duten berritze guzien aurka irtetzen diran garai ontan.

Oiarbide'tar Petri

Billaro'ko sakramentinoa

FILOSOFIAREN MUIÑA

1.- Zer da filosofia ta zer ez da filosofia?

Geronen burua filosofilari uste degunok, ba ote dakigu jakin geuk ere! Geiegi ez beiñipein, bestela ezjakinen bati erakutsi bearra dezula egin zazu ta laister ikusiko duzu zeure burua larri zer esan ez dakizula. Orixe nai nuke nik euskerazko lan onekin, Filosofiaren "zera" agirian jarri, jartzen saiatu beintzat, danera jota irudimenaren urbillago ipintzea besterik irixten ez badet ere. Baezpadan ez litzake gaizki etorriko Guillermo Dilthey bere "Filosofiaren muiña" idaztia daramatela aurrendari aurrez esatea.

2.- Arloaren berri eman da gero, galdera bat dator bereala: nundik norako bidea aukeratu-ko dugu elburura irixteko, zein metodo, filosofi-arazoetan deritzaion bezela?

a) Filosofi itzaren esan-naitik, "etimologitik", asita, auzia galtzekoak dira itxura guztiak, ez baitu JAKINTZA-ZALETASUNA gauza arrontaz kanpora beste zer-esanik jaurtitzen. Baztertu dezagun bada bide au.

b) Beste bat eskuratu liteke: Filosofolariak gaurdaino emandako definizioak jaso ta bata-besteak elkar neureuz goitik berako definizio

bat osatu. Baina ezberdintasun ez-erik a kar ikusi-
-ezinakoak dirala oartu ond ren, gaitza deritzai-
gu osatu bidez orrelako derinizino sakon ta esen-
tzizkoa arkitzea. Ona ale batzuk: Platon'en iri-
tziz "jakintza uts eta seilla" omen da filosofia;
Estoiko ta Epikurotarrak diotenez "birtute ta zo-
rion gaillurrera elduko ez-eluko leia"; Wolf'ek
"Scientia possibilium quatenus esse possunt"; Fe-
deriko Ueberweg'ek "aintzin-usteen (principios)
jakintza"; t.a....

d) Aukerarik gelditzen da oraindian: ez ote
da obe izango definizino oiek alde batera utzita
-aal izan ezkerre beintzat-, Edestiak damaigun
bezela Filosofia atxitu ta ezur barruko guna zu-
rrut egin?

Orra, ba: filosofiaren gun ori zurrut egi-
teko gun berbera zein dan ez ote dugu jakin bear-
lenbizi? Lengora gatoz ba, arriakin burua jo ta
burua arriakin jo berdin xamar omen da, euskeraz-
ko esakerak dion lez.

Baina ez, guk zer dan jakin gabe zurrut
egiteari ekingo diogu orratik, NUN DAGON jakin
dezakegulako, noski. ZER DAN, geroxeago, lanaren
buruan esateko utziko dugu, asierako asmoa ukat-
zen jardun gabe.

Orain, gure lenengo eginbearra auxe da, fi-
losofi-antza azaltzen duten sistema guziak bildu,
ta oiengan barne-mami bakar ta ukigarria berezitu.
Ez da, ba, gure eraso-oina elburutzat agindu du-
gun filosofiaren "zera" ura emen aitzindurik (pe-
titio principii), jakiñerdiko edozein gizonak so-
matzeko lain filosofi-antza ta usai apartekoa bai-
zik.

3.- Ta egia esan baldin badugu jaiotze egu-
netik arrezkero beti beneta filosofi bailiran
agurtuak izan diran sistemaR ba-daude: gizadiak
oiengan filosofi-muina atzeman duanaren seinalea:
Platon, Aristoteles, Descartes, Leibniz, Kant
eta Hegel, adibidez.

Esandakoakin ia oartzeko astirik gabe bi-
dean asita gaituzu, jarraitu besterik ez zaigu
palta. Goazen aurrera.

Alako sistematan uxartuz, ezberdintasunak
bazter, beti ere ezaupide sakon berdinak adirei-
ten ditugu: guzi oiek, EROTASUN-ZALEAK izatea bat,

apurka ta zatika dabilleenaren aldean. Orrezaz gainera, beti, filosofilariaren so-egitean **ARRAZOI-EZAGUTZA** dabil nagusi: ona ezaupideetan bigarrena. Esan dugunez, ezaupide bi aukerak zeintzen dute filosofi izena merezi duan edozer:

- a) Izakien orotasuna beti begiratzea.
- b) Orotasun orren aurrez-aurre arrazoï soilla galdegiten ta ezagutu naian.

4.- Baiña orain arteko bidean jasotako gaiki aukerak aberastu bearrean arkitzen gera, formalegi dira, ta larru gorrian utzi ditugula esango luteke bestela. Edestiak damaigun alkarrenganako lotunean sistema sorta aztertzea izango dugu oraingo gaia: Edesti-arauz aldakuntzaren gora-beherak laburki ta so batean gureganatu. ikusgune ontatik alkar jasan-eziñeko definizioak ere ulertzeko gauza izango gera.

A) Sokrates: Filosofilari onen jarkeran grezitar gogoaren ikus-naia, arrazoiz ezagutu naia da ezagun. Gizoraren **bizitza** osoa gogartea oinarri dula jaso nai luke; edozein egitez arrazoia jabetu dedilla, ta zertan ari dan jakin. Bizitza ta bizitza-saillak filosofilariari dagokion eran carpetu. Jokera oni betekunde emango diona Platon dugu.

Platon: gizonaren bizitzeko zer guztiak (ekiteari dagozkionak bakarrik ez. agintarien edo olerkariaren edo jakinzalearen eginkizunekoak ere berdin) guztiak filosofi-oiaketaz berdintsu basartetuko ditu. Sokrates eta Platon'en filosofia litzake esate baterako: norbere buruak jakintzarekiko ta ekitearekiko dauzkan balioak -egi, eder eta onaren balioak- gogarten diarduanaren zeregina.

B) Aristoteles'en eginkizuna, berriz, kanporago, nolabait esateko, izate-izatasunaren soroan dago. Ta bere filosofiaren erdi mamitsua **OROGAINDIKO IZATEAREN IAKINTZA**, lenbiziko filosofia, Metafisika, gauzen izaki-muinari buruz diarduna, izakien alkarrenganako lotuneak ta errorik sakonena atzematen dabilleen ori da. Sokrates eta Platon'en filosofia **NORBERE BURUAREN AZTERAUNTZA** bezela agiri da. Aristoteles'ena, berriz, **MUNDUA DANAREN IKASKINTZA**, munduaren buru-jabetze edo konzepzio laburki esateko.

Orain pixkat zearka, ondorengo sistemak bide jakinetok euren pausoak nola zuzendu dituzten erakusten saiatuko gera.

A') Aristoteles'en urrengo arboa: Estoiko ta Epikurotarak. Filosofia dala-ta norberc buruari arpegia ematera eldu gera berriz ere: ikuspegika ingurumaiia estatu egin zaigu, ordea, Platon ta Sokrates'ekin zeukan zabalune ura ez da inundikan agiri. Ain zuzen, filosofi ontan "ekiteari" dagozkien auziak besterik ez dute aintzat artzea merezi: bizitzaren filosofia biurtu da.

B') Descartes, Leibniz, Spinoza: auek irurak bestelako joera berdiña, Aristoteles'en araukoa, azaltzen dute, MUNDUA DANAREN JAKINTZA ortan lanean ari baitira.

A'') Kant datorkigu urrengo: Platon'en araura jokatu du onek, norberaren gogoa ezagutze lanean. Egia da ordea, ezagutzearen egizko oinarriak aztertuz asi zala, baiña ez zan or gelditzeko gizona, eder ta onaren balioekin ere ekin zion, ta bakcitzaren oinarriak billatu ta bertan tinkotu arte ez zun etsi. Kanten filosofia: norberaren baitan sartu-aztertze zearo bat da, bere buruaren baliozko jokabide osoa epaitzearren gizon ikasiak egiten duan gogarte-lana...

B'') XIX'garren gizaldian DOIXTARREN IDEA-LISMOA, munduaren eritzipen edo konzepziño berria ao-betean eskeiñiz. Fichte, Schelling eta Hegel dira mundu berri orren langilleak. Ta berolen gorai patze bakarrak, materialismo, positibismo ta neokantismoaren alderdikariak eraiki egingo ditu.

A''') Neokantismoa: Onek Kant'en sisteman "ukigai" (material, objetivo, número) agiri dan edozer baztertu egiten du. Filosofiak ementxe "formal" itxura jazten du zearo: gure ezagutzearen aalpidea ta jokua ikasi nai luke ta bein betiko filosofia egiteko bide-tankera ziar bakarra aukeratu.

B''') Bestelako joera bat neokantismotararak baztertutako ukigai izaki-alcengana dijoa zuzenean, aien formalismo-metodismoak ezetsita.

Mendeko filosofia bera azkenengo bide ontako autsa oinetatik astindu gabe dago oraindik, naiz "Metaphysica inductiva" deitu (E.von Hartmann, Wundt, Driesch, eusleak), naiz "Intuiziozko filosofia" (Bergson) edo gaur eguneko "Fenomenologie" (Husserl, Scheler) guztiak entzun aundikoak.

Oldozmen edo pentsamentuaren aldakuntz osori jaramon egiñaz, Edestiak lagun, filosofiari emandako so bete onek, filosofiaren asmo dugun "Esentizko esanai edo konzeptuaren" gaiki berri bi zeazteraino ekarri gaitu: NORBERAREN KONZEPZIOA eta MUNDUAREN KONZEPZIOA. Bata bestearen aurrezkoak bailiran jokutzen dutela ere oartu aal izan dugu: zenbait eta bata nabarmenago, orrenbestean bestea itzaltzenago. Filosofiaren Edestia azkenean bien artean batera ta bestera dabillen esekiaren antzeko iruditu zaigu, ta onek guretzat gauza atsegingarri bat esan nai du: guk edireindako gaiki bi oiek, benetan, asmoan dugun ezentzizko esanaia edo konzeptuari dagozkiola. Ez baita bidezko ez ara ta ez ona alperrik ibiltzea, "bai bata ta bai bestea" esan besterik ez dago, izan ere filosofia, biak, norberaren konzepziñoa ta munduaren konzepziñoa da bat-batean.

5.- Azkenengo jasotako osagai "materialak", lenago izandako osagai "formalekin" (orotasun zaletasuna ta arrazoizko ezagutze soilla) orobatzeko ordua ere eldu zaigu. Izakien orotasuna bi aldetera artu diteke orain azkenengo erdietsitako ezentzizko gaiki oen egitez; izaki-orotasuna bai kanpoko munduari ta bai norberaren barrukoari erantsi lezaiokelako, alegia. "makrokosmos" edo "mikrokosmos" dala, bieri zor zaie izaki-orotasuna. Batari edo besteari kaso gelago egite ortatik dator kio filosofiari munduaren konzepziño bezela edo norberaren konzepziño bezela beste batzutan agertzea. Dana dala, ezentzizko gaiki azkenengo bi oiek egoki datoz, lengoak ornitu ta zeaztu beste zeregiñak ez dute-ta.

Onezkero, filosofiaren muiñari buruz dakar gun arloan zerbait erabakitzeke gauza ba-gerala uste dut. Dasagun bada, Filosofia: 1) norberaren baliozko jokabidea ikusteko gogoak barreberuntz egiten duan sartu-aztertze bat dala, naiz ekite

gauzetan edo jakite-uts gauzetan aritu, ta gainerra, 2) munduaren arrazoizko ezagutze-betean atsedan artu arte, izakien arteko azken-lotuneak ulertze-lanean gogoak daukan lei bizi bat.

Erdika bi aukeraindik sakonkiago lotetsi ditzakegu. Izan ere, Platon eta Kant'ek adierazi bezela, jomuga ta iritxi-bideen arteko alkartasuna zor omen diote alkarri: gogoak beregan diardun sartu-aztertze ori, munduaren irudi edo metafisiku-ezagutza irixteko bidea besterik ez da.

Esan dezakegu, bada, arrazoiketa guzien buruan, Filosofia zera dala: "Jakintzaren ta ekitearen baliozko eritziari buruz azterketa bide dula, gizonaren gogoak munduaren buru-jabetze edo konzeptzino bat irixteko darabilen asmo ta leia."

6.- Filosofiaren muna aragi bizitan uzten duan definizioa auxe induziozko bidez erdietsi dugu. Lana zearo gaindu dezagun, orain dezuziozko bidea edo metodoa erabiliaz. Emen datza zeregina: gogoaren egimen (funtzio) goienen artean filosofiari dagokion lekua erabaki, Kultura-saillean dagokion lekua. Kulturaren Funtzio sorta begitaldi bakar baten gureganatzeak on egingo digu ta argi berri bat ixiotuko al du iritxitako filosofiaren esentzizko konzeptu bairuan.

Gogo ta Kulturaren Funtzio nagusiak filosofiarekin dauzkaten aldeak ikustera goazen.

Morala. Filosofiaren urrutien bizi dana iruditzen zaigu; gizakien ekiteari begira bizi da, naimenaren alderdietan. Filosofia berriz jakintza utsaren gizaki-alderdikoa dugu.

Jakintza. Filosofia ta biak aideak dirala ezagun daukate. Jakintza-utsaren alderdietan bizi-tzea da berdina-izea ematen diena. Ordea, bata gauzen orotasunari begira ari dan bitartean, besteak izadi-saillak besterik ez ditu beitzen. Baina ez da au guztia. Inolaz ezin dezakegu filosofia aparteko jakintza mota bat bezela begira, jakintza endapean endaki bailitzan, "orokar jakintza", esate baterako, izendatzen dugularik. Filosofiari dagokion OROTASUNAK jakintza-sail bakoi-tzeko aleak bata bestearen urrengo ipintzea baiño zerbait geitxuago eskatzen du. Ikusgunea da batez ere emen aldatzen dana, ortan aparteko ikus-

gune ta funtzio bear baidu. Filosofilariaren ezagutza ta jakintsuarena berez eta izatez dira ezberdiñak, ez gaian bakarrik.

Edertia ta Erlijioa... ta Filosofia, idekoak irurak, gar berean ari baitira: munduaren eta bizitzaren zer-ote berau da-ta olerti, erlijio ta filosofiaren igarkai. Izadiari buruz bere iritzia agertu, munduaren konzepziño bat asmatu, galdera onen azkurea asetzeko erantzun baten bila dabiltz irurak. Ala ta guziz ere, nun edo nunbait idekoak izan arren, berezitu ere jatorrian egiten dira. Konzepziñoa filosofiak sortu baldin badu, jatorrian arrazoizko ezagutza bearko izan. Baldin erlijioak, fedea, biotzeko joaldi ta ikutuak, norberantzat bakarrik baliotsu diranak. Filosofilariaren konzepziñoak guztiontzat inuardunak nai dute izan ta arrazoiz egiztatu ditezke, ala uste beintzat. Erlijio konzepziñoari baiezkoa emateko orduan, berriz, danontzat berdiña uste dugun arrazoi-ezagutza ez du balio, nor bakoitza da, biotz ukialdiak lagun, bere auzian azkenengo itza daukana. Jatorriz, izatez, dira, bada, ezberdinak, ta au alkarren antza alperrik galdu gabe.


Orobat filosofia ta edertia ondoko ezberdintasunak berezitzen ditu. Emandako munduaren eritzipena edo interpretaziñoa ez da oldozmenaren indar utsez sortua, intuiziñoa ta biotz-ukialdiak batez ere ezagun ditu etorhuruan. Obeto esatearren, ertilariak, gizonaren indar eta almen guziak eragindako arnasaldi baten irazaten du bere egin-tza. Au egillearen aldetik.

Baiña egitekoan bertan ere ertilariak eta filosofilariak ez dute gauzen orotasuna era be-rean atzitutzen. Ertilariak lenen-lenengo izaki edo gertaldi (proceso) bakarra du begitartean, gaiñera auek aiderazteko orduan "antzeztu" egiten ditu, irudia erabiltzen du. Baiña ez alperrik, jokoak zer esana ba du: gertaldi antzeztuak benetako gertaldiaren izakera du azaltzen, eta itxuraz, izaki bakartiaren gertaldi dana, esan-naiean, mundu osoaren gertaldia adierazten du. Ertilariak eta olerkariak aurena, izaki edo gertaldi bakartiak eritzipetu egiten badituzte ere, zearbidez mundu edo bizitza osoaren eritzipena egiten ari

zaizkigu.

Ona laburki esanda filosofiari kultura-saillan dagokion lekua: filosofiak bi matrail ditu, bata erlijioari ta edertiari begira ta jakintza alderuntz bestea. Aiekin bat gauzen orotasunari kaso egiten diola dauka. Bestearekin, berriz, jakintza eta biko arrazoizko ezagutze soilla erabiltzen omen dute. Filosofia danen erdian; eskubi-aldean erlijioa ta edertia, beti ere erlijioaren urbillago (aurrena, filosofiak bezela, gauzen orotasuna begiratzen baidu), ta ezkerrean, jakintza arrazoia nagusi dula.

Andonegi'tar Xabier
Arantzazu'ko praillea



ERIO TZ- ONDORENGOAREN BERRI

Nonai gaudela, eriotz-zirrara, barru zirikatzaille lez, unealdi orotan ate joka dabilkigu. Bizitza nun loretu, an eriotza, segadan sirgin bizitz-kentzaillea. Eriotzaren otzikara, barne-espetsxean il itxuran gordetzea, ta beraren gogota aldiro nabaituaz bizitzea, ez dira biak berdin.

Gaurko gizonen bizitzeko erak konzientziaren jarleku gardenetik eriotz-irudia uxatu du. Eriotzaren argazkia, gizarte ixpilluan ez dirudi bizitzarekin josirik dijuan egi bizi-bizia, zeru-lainotan dagon zerbait illuna baizik. Danok dakigu, eriotzaz lur ontako mugarria igaro-geroztik zerbait datorkigula. Baiña baita bizi ere inoiz gizon-arnasa itoko ez balitz bezela!! Gizarte mordoa, eriotz-zabartasunaren zurrunbilloan jausita, materialismu-azia jorratzen dakusgu. Zer diot? Gaur gaurkoa, ondorengoa ikustekotan gaituk eta... munduaren mintzairak erantzuki. Batzuek mingaiñaz, besteak egintzaz, geinak jokabide onen jarraitzaille itxuak ditugu. Garaiz, 1949'an, Pio XII'garrenak zion onako au: "Sinis men egi oinarrizkoen zabaltze lana egun-eguneko egin bear xuxpergarria dugu. Jakiña, jardun auek buru argiz, pin erabilli bear dira. Egiaren ma-

mia jarraiki, Eleizak, Jainko ta gizonen aurrean Kristo'k erakutsi eran, zabaldu bear du dotriña. Ez nolanaian. Ifungo zirkustantzieta men egiteke. Agian, zeru-irritsa berez osatuagoa dugu, betidaniko inpernuaren zigormin saminak dakarkin bildurra baino. Dana dakar, ezin uka Jainkoagana-ko joan-aldian bide laguntzaille dugula".

Geroko bizitzaren dardarizoak eraginda, noski, amaikatxoan ezpain-mingaiñak itz jarioz leuntzen saiatu berriak ditugu. Katolikotasunean federik ez dutenak ere bai. Ziurtasunaren iritxi-opa dabilkite bitarteko. Oraindik orain Agustin'en esaerak ba-du indar, gure biotzon bare-ezina ez dala lasaitutzen lizun aparra darion edanontziz. gutxiago jakintzaren ziurtasunez dionean Agustin berak, beste toki batean, Aitor-kizunetan ain zuzen ere, dio: "Gezurtu naiean asko ezagutu ditut; bat bakarrik ez bera gezurtua gura lukenik." Gizonak irrika duan egia ez da astrakto olako zerbait, bere zorion-egarria ziur ase dezaioken egi bete, guttiz osoa baizik. Ikas-kintza oni buruz, argitaratu dira zenbait teologari ospatsuen idazlan. "The Sunday Times" egunkari inglesak, orain urte batzuk, "Gertakari arrigarria" jardunaz artikulu sailia zekarkin.

Illondokoaren erakusketan, iritzi, asmo, erakunde ezberdineko buruak azaldu zuten berea. "Buru bazenbat aburu" dino esakun zarrak; gogo bakoitzean ere ugari gogoetak. Dothy Sayers, kristauki azia, zenbat buru ariñetan dabilten leku (espacio) ta noizaldi (tiempo) ideoloji igeskorak aienaturik, azken-eriotz sinismenaren traba sortzailleak galntzera dator. Sayers'en adimenean, leku ta noizaldiaren barrupean ezin ausizko lokarriz korapillaturik bizi gaituzu. Jainko deritzan egia borobilla gure baietatik kanpo daukagu. Zeru azpiko maindiie zuriz bera dirauten fenomenoak, ots, aldi, leku, egurats ta abar, sorkariak ditugu. Beraz, Jainkoaren sorterria, betikotasunean mugarik eza dugu. Gizona betikotasun goizean esnatzeko autetsia dago. Egi onen aurrean sinismenaren begiak zorrozuko balitu, bearrezkoena eginik luke. Gizona, gizon danez, fede lausotuz ren txerta barne-barnean darama. Au dala-ta, ara

sortu burruka, geroko zorionaren baldintza. Aurkako zaizkion ostopoak gerra biziz gaintzea da beraren lana; mundu ontan, gaindu eran, garaille egi osozke sabelean paxtasun-kima erne dezan. Aristauontzat, zerua, diño, zorion txoramenez, atsedan toki osoarantz egan goazen kabi apain, guztiz asegarria omen da. Gaiztoki edo inpernua ostera, egi-aurka burugogor, ausarki dabillenaren leize zuloa. Kristau izkera jatorrean, egi nagusien dotriña etzaio iruditzen biziro osatua illondoko berpiztea dala esanaz; batez ere au, leku, noizaldi edo eguratsean bizitzarekin jarraitze-esanaian ulertzen badugu. Neurtuago litzake betikotasun atearen sarrera dala esatea. Misterio guztiak illunpean jaiok ditugu. Idazti deunaren laguntzarik gabe aulak giñake gai ontan seguru jokatzeko.

ERIoTZA GUZTLAREN AZKENA?

Bigarren atalean Bertrand Rusell filosofariak du itz. Eriotza, gizaki-izatearen amaia ta auts biurtzea dalakoan ermo dago. Jakintza soroan gizon aundiki ez bagendu, dakarzkin argumentuen joskera deusezten astea ere ez luke merezi. Irakurleen zalaparta sortzaille alena!! Enpiriku adimenzale porrokataua iñor izatekotan, auxe dugu, geiago ezin aalean. Siñismenaren sustraiak zeñ ezartzen ditu, antziñako gezurrezko jainkoen elesti edo mitoloji, ta grekotar filosofi zaarrean. Ba-dakar beste giltzarria, aurrekoarekin bikote egiten duana. Jakintzaren berekiko indarrean sendotzen da, oiñarrikoitzaz artuki.

Ara emen laburki argumentazioa: zerki edo sustantzidun notiñarik ez dago. Gizartearen belaun-belaunezko aurrerapena oroimenak mugiturik dabil. Beraz, oroimenaren bidez omen dator materi bakoitzaren osakuntza. Beste aldetik, berriz, kasko-zorroan du oroimenak lantoki aukeratua; gero eriotzean, buru-baeruan zebillen motorra, bizidun orren "ezer" izatea dator. Mirariz ez bada, gorputz-berpiztea gezurrezkoa dirudi. Rusell'ek dion buru-sapaiko "almen izkutukoia", gogoeta ta sentimentuen bitartekotasunaz bizidun aldatu-rik ikusi nai du. Auek eriotzarekin izkututzen

diranez, ondorio bearrekoz, buiuko motorraren bie-
gia, azken agurrakia, uts biurtzera, aseindutze-
ra dijuakigu. Au onela dalarik, lartar bizitzari
betidanean jarraitzen dion berpiztea jakintz-oi-
zarri gabeko etxea deritzaio. Zenbaitzuetan, eri-
ets bildurra barruraino sartuazazi duan pentsa-
-era auzat!!

Irakurle jakitunak, Russell'en dotriaren
gezurra, punturik-puntu berexi zuten. Geienak
bere pekatuak aundiena, gizaki-notinean zeukan
"primitivismo" idean billatzen diote.

Benetan, ezin dezakegu guregan ezer nabai-
tu, nerbaitekertara mugituarazten ez bagaitu.
Zentzuak ditugu gure irudimen ekartzailleak. Oroi-
mena damakigu, biziaren iturri dan animatik txur-
gatus, izaki sustantzidun gaituzulako. Ez uste
oroimena edo memoria etortzearekin batera, notia
edo persona izaten, ta bera itzaltzeal, auz biur-
tzen danik. Jakintsuen izkuntza zebilbila zion.
Ulergaitza darien izkera dirudit, enpiriku-arra-
sei parregarriak igarorik, estakit nungo mugotan
ere ertzeratzen baida. Sikoloji ta mistika sako-
netik urrum, enpiriku-metodua axalki omen dabilki.

Irakurle argiari galdetsen badiegu Russell'
en atzalkizuna (tesis) betegarri al zaionentz,
bere bagietan irakurri genezake "ez" erantzuna.
Beraren eskolakoak, filosofi ta zenbakizki edo
arimetikan jauntxotzat jotzen badate ere, azken
ontan, auengandik ez ditu lore gelegirik usaindu,

. . .

Dowling'en artikulua ongi-eterri jator-
ragoa izan zuan, bioztiago, arreta aundiz jaso
baizan. Animen giza-soin aldatze (transmigración)
ta espiritismoaren usteri edo teoria zekarkin.
Arrigarria onen diona.

Bere lanen nausitasun adirazle diran bi
ezaugarri aurreratzen dizkigu. 1) Ikusi ta ira-
kurritakoan babestuaz, beraren esanak bai omen
du itzal. 2) Au aski ez bada, izkutuko bide era-
kusleak eraginda, biribil txiki batean zeuden
persona askokin lan egindako esperientziz, bai
omen dezake itz egin. Ondorengoa dio. Egia deza-
gun kontu, gizonari, edonun, itxaso edo legerrean

bizitz-aspoa joan zaiola. Ortzean dagon "ni" orrekin bereala artu-emanik, eraspelik ez badu, oraindik ere lurrari itsatsirik dirau, eriotzaren berri jakiteke. Dowving, Rusell'en antzera, esperientzi bidetan dabil. Orregatik, aurrez oarkizun batzuk bearrezkoak zaizkigu. Espiritu oso orokor-rak, "involuzionaren" bitartez, materi guztia espirituz era-berritzen du. Ta espiritua "aldaketa edo eboluzioan" guda dabilki, materi itxuren ikustez, berekiko biurtzen. Gizonagan espiritua bi eratan dago: gorputz-ikuitasun (corporeidad física) tankeran eta ortzezko izakera (etéreo) jazkeran. Bi auek estuki alkartuta dagozalarik, askotan ba-ditu anima ortzetarrak, eriotzan, neke prankorik zeru lainotako mundura igotzen. Lurreko sokak ausi eziñean gerta baledi, bertan josirik dirauke.

Au adierazi ondoren, egilleak dion esperientziaren atzalpen edo argibidea, au da, era larrian dagon animaren zoritxarra zerbait ulertu dezakegu. Betor lenbaitlen espiritismoa, anima-azkatzaille leiala, olako arriskueta berak baidu esku-sendalaria. Espiritismoak lekarkioke anima galduari zoriona. Eguratse izar mundua, aundi, zabal, luzean zeru-inpernutaraino iristen da. Animak emen nolako bizitza eman, eriotzan alako maillatara igo edo jetxiko zaigu. Betiko zigorkadurik ez luke egon bear. Bestela, Jainko maitaberraren guganako maitasuna gutxi-usteko genuke. Gaiñera, zorrozki, neurritik kanpora epaituak izango giñake. Jaiotza berriak ugarituz, anima txautu ta garbiagotzen dijoalarik, piskanaka-piskanaka, azken-jomugan, betikotasunean "espirituarekin" besakartzera doa. Aspalditik datozkigun erakuskitunak ditugu. Antziñan, Platon aundiak erabilli zitun. Gaur egun, berriz, bakoitzak bere gustora darabilzkite. Onela Slavatsky, Besant... azkenik Dowving. Onen ideologia, bearrezkoena ekarriz, soil-soillik azaldu dut. Mamia miliskatu ote dugu?

OBJEZIOAK BUTLER'RI.

Gerokoaren erakuskizun katolikua Butler beneditinuak eman zuan. Rusell'ek aurkeztutako auziari loturik diardu.

Orrax ze puntutan erasotzen dioten. Rusell'i galdeturik bezela diotsa: Lriotza guztiaren amaia dala baderizkiozu, zertarako mundua? Ez ote ulerkaitz onen ta gure izatea? Erantzunaren mandataria beste txulo batetik zirika...: Betikotasunak erdi duan gaiztoki beltzaren izatasuna bildurgarriago, eziñezkoago ez al ditudi? Nola onartu genezake, Tomak, zerukoak inpernuan dagozanak kiskaltzen ikusirik pozartzen dutela, badio? Lurreko bizitzak bai omen du naiko sentidu, ona berez baliotsua dalako. Beraz, mundua Jainkoak sortua da. Eskritura doneak geroko gertakari onen tulunbioa argitu zezakeala zion Butler'en iritzia zilipurdika bota zuten. Idazti deuneko itzak, egun-eguneko ideolojiari amor eginaz, erabili bear omen dira. Bestalde, artu eziñezkoak izango litzazkiguke, adibidez, gizonen betiko ondamendia.

Butler'en iritzia, diote, jarraituko bagendu, gizonak, jaio aurretik, inpernurantz betidanik zuzendurik egongo lirake. Objezio auen pixua zenbaiterainokoa dugu? Aundia ez. Alare, buru landuetan izan dute sarrera onik.

BERPIZTUKO AL GERA?

Eztabaida onen su-
-emaillea Wand, anglikanu eleizan London'go go-
tzaia izana, dugu. Gizonok, geroko bizitzaren kon-
tuan, sinbolo edo ezaugarrietan bakarrik itz egin
dezakegu. Beraren izkera bikaina ez dakigu. Ja-
kin-gura esnarazten diguten gai, arlo bereziak
izkutuan, alabearrez, gordetzen dira. Kristauak
ziurki jakin beza: Kristo'ri jarraiko balio, bei-
ñola lurrean maitatu zituanakin batera beraren
adiskidetasuna luke. Ostera, sorbalda jiratuko
balio, betiko galdurik litzake.

Jakintzak, toki ez jakinetan edo bide illu-
netan, argi txirrixta eskeini dezake; baiño, er-
lijio-moral ta gerokoaren auzian, ipurtargiak
aina ez. Zalaparta aundirik etzuen atera, kris-
tau-sinismena balzekarkin. Jakina, bere osotasu-
nean jeneralki onartzera edo uztera garamazki.
Erdi bidean ezin exeri gindezke.

Betor Basil Henriques'en iritzia. Anima, "gisonaren egiazko ni" Jainkoak irazan zuan, ta Berarengana itzultzen da. Gorputzak berpizte susmorik ez du sumatuko. Anima ezin diteke il. Inpernu betiko min-latzak ezin litezkenak deritzaizkio. Onen izatasuna beste erabatera, errexki azaldu genezake. Ots, munduan maitasunari, egiari, ona danari ateak itxi dizkiona, geroko bizitzan alperrik dabilke zeruko dirdiztasuna begistatu naiean. Henriques, eriotz bildurra zertxobait arintzearren, xamurki, goxoki solastu saigu.

Luterotarrak alkarrekiko burrukan inpernu-ko sua dala-ta...

Burruka txingarra 1953'an berotu zan. Halesby'k Noruega'ko radiotik. Berpiztean fede ba-gaukala zirudin. Nola zagoz, anima, zion, biotz-otz, obenen damurik gabe, bizibide ortan il ezkeru, zuzenik gaiztoki zulora jaurtiko zerala jakiñik? Mundik gelegiko zabarkeri au? Itzaldia-
ren igalia ba-dakigu zer izan zan: entzuleen bildurra, misterioaren ixilpekoa ezagutu naia. Jakintsu ta teologariengan ba-zetorren kaitzaldiaren piska bateko eraso, ebi zaparra jasan bearra!! Kristian Schfeldup luterotar gotzaiak ain arriskuzko auziaren zama beregan lezuan. "Ba-dakigu, "risto'k ikurtu zigunez, inpernuratu gintezkela, baiña Beragandik erakusbide garbirik objective ez gendun eskuratu." Amaiturik dio: "Ez nabil zalantzuan, Jainkoaren guganako maitasuna ta erruki itsuak neurtzen. Guk uste baiño aipagarriagoak ditugu. Kristo'ren Berri-Ona, maitasunarena dugu. Au onela dalarik, nerekkiko diot: Jainkoaren biotz-zabaltasuna emen, ta gero, azken epaian azaltzen duan zuzentasun edo justizi gogorregia, au biok nola anaitu? Biak lotzeke uztarririk ez dut arkitzen."

Jokabide au jarraiki, eskutik elduta beze-la, ondorio ontara goaz.

Inpernuratu bai... betiko oiñazerik ez...

Schjelderup'ek, kondenazioa ta gorputz-min etengabea, langa batez bereizten ditu. "Kondenatze edo inpernuratz" itza, salbazioa galdu deza-

kegun eran edo sentiduan darabilki. Inpernuratzeko aaltasuna, diteken tasuna gorputz-oiñazeekin naastea, Kristo'ren itzak oker ulertzea omen da. Gorputz-miñak idurizki (figurativamente) erabiltzeak ere, aurreko lerroen indarra ez du aaltzen.

Bijoakit galdera: Gogozko miña, ots, Jainkoa aurrez-aurre egundo ez dastatzea, gorputzezkoren baiño askoz barrutiagoa, penagarriagoa ez al da izango? Arima obenez galtzen duana, gaiztokiko betiko oiñazetan erortzen dala diñoten Kristo'ren esanik, agerpena donean ez omen da agiri. "ondena-zioaren zertasuna, adimen argiz gureganatzen saiatzea, uskeritan denbora galtzea deritzaio. Betikotasunaren barruti-zelaietan gizon almenak ezer gutxi dezake. Etsai-tulunbioan dirauten gorputz-animen zorigaitzak, Kristo'ren agerpenetan ez du xederik; bai oruea, kontradizioak. Berak esanak ez dira itzez-itz erabakitzeakoak. Hallesby'k garbitasun meenean Schfedup'en asmoak gartsuki lurperatzen ditu. Gaiñera, oiñaze gabeko gaiztokia egi bailitzan onartzea, katolikotasun mintzairan, oso trakets, ilun itzegitea da. Inpernuak, benetako zuzentasun barruan dagonez, alderdi onak besterik ez dakarzkigu, zuzentasuna lege dan tokian.

"Bonum est faciendum malumque vitandum" sustraia, denok naturaz dakigu. Ara emen gaiztakeri ta onaren ikurrin bi. Gudan nor garaille? Arek saria irabazia. Beraz, Jainkoaren sariak zuzenki neurtuak dira. Gaiztokiaren etxea, osoki, betikotasuna aaztutzeke, altxa bearrean gera, gogozko ta gorputz-oiñazeak gai ditugula. Idazti deunan dagozen agerpenak nai aiña argumentu, sendogarritzat, aurreratu dezaizkigukete.

Aizeak nundik bultza dabilizan orrenbeste esamesa "Orbis Catholicus" aldizkari iturri-txorrotik edanikan dakizkit. Erleak lorearekin egin oi duana egin dut:neretu.

• • •

Lurreko biztanleetara begirada labur bat irauli dezagun. Ekonomi-jardunetan josorik nagusiak, sal-erosketa zaleak. Buru, naimen, zentzuak eginkizun oietan urtutzen dijoazkie. Langilleak, txiro bezin beartsu, eguneroko ogia nola etxera-

tuko pentsaketa larrian. Lizunkeriarren morroiak aragi gosea elikatzen. Mundu osoari, zoro-etxe alako zerbaiteren antza artzen diot.

Munduko iskanbillapean jaio ta bizi diran zenbait arrazoidunai, geroke gogorakizun ori, txorakeri, alegi, ametsa iruditzen zaie. Materialismo kutsuz, ajobagabekeri dalako gaixotasun ilkorra zaiñeratu ez dedin, bijua eleizgizonok eskuetan dabilkigun sendakai osasungarria. Idatziz ta aositzez zabaldu dezakegu. +1 gerozko bizitzaren berri emanaz, inpernu bildurrak ikuturik bederen, erlijioan otzak, Jainkoaren maitasunean berotuko lirake. Benetan jokatzeko onen estalgarria ez da bi-ziro segurua; alarè estalgarri. Sermoilariari dagokio, bada, il ondoko gabaren misterioa zeatz dan bezela erakustea.

Iztueta'tar Paulo

Billaro'ko Sakramentinoa


(35'gn. orritik dator.)

[1] As. I,31

[2] San Juan de la Cruz, Cántico Espiritual,5

[3] As. I,26

[4] As. I,27



TERESA DEUNAREN IRAKATSIAK

I.- A T A R I A

Jaungoikoaren antzeko egiñak gera gizakiok. Izaki oro dira on, izaki oro Jaungoikoak edertasunez jantziak: "Ta Berak egindako guziak ikusi zituan; eta onak ziran" [1]. "Bere edertasunez jantziak utzi zituan" [2]. Gizakiok, orratio, besteen aldean goian gaude, Jaungoikoaren urbillago. Idazteunean garbi dakusagu. Beste izakien sortzeak erestean, onela ari da: "Jaungoikoak esan zuan: SOR BEDI... BEGO..." Gizona sortzean, berriz: "Jainkoak esan zuan: EGIN DEZAGUN gizona gure antz eta irudiko" [3]. "Ta Jainkoak gizona bere irudikoa egin zuan" [4].

Atal bi ditu gizonak: galezkoa eta gogozkoa, soñia ta gogoa. Lenik ziran galez egiña du soñia; ezerezetik Jaungoikoak sortua gogoa. Soñia berez ezer aundirik ez da. Gogoarengatik da gizona aundia ta eder. Gogoa batez ere da Jaungoikoaren antz eta irudiko.

"Ta Jaungoikoak gizona bere antz eta irudiko egin zuan". Eskerrez betea doatsu, bere adiskide Jainkoak gizona egin zuan. Gizonak beste izaki oro mendeko zeuzkan, oro beretzat egiñak zituan; Jaungoikoaganako ezaguna ta maitasuna barnean nabaitzen zituan, Jainkoaren adiskide zan eta adiskidetasun ontan zeukan bere zoriona.

Gizonak, baiña, akats bat zuan: gaitzeratu

al izatea. Akats onek galdu zuan. Gaizkin bekaiztiaren lakioan bildua izan zan, Jainkoa izateko gogo sortu zitzaion, on ta gaitzaren jakintza iristeko gogo, au da, zer dan on ta zer gaitz berak bere buruz erabakitzeke almena iritsi naia, eginbearretan bere buru izan naia. Aundinai onek gizona Jaungoikoagandik aldindu egin zuan, Jainkoaren eta gizonaren erdian leize izugarri bat iriki zuan. Leizea gizonaren egiña zan, gizonak estali bearra, beraz; gizonak ezin zezakean, ordea.

Maitasun dan Jaungoikoa gizagaixoaz errukitu zan, berak asmatu zuan leize ori estali-era; Bitarteko bat gizonari bidali zion, bere Senibakarra bidali zion gizon itxuran, gizon egiña, egizko Jaungoiko ta egizko gizon. Jaungoiko-gizon onek Apaiz, Errege ta Irakasle lanaz Bitartekotza bete zuan: Gizona Jaungoikoarekin adiskidetu zuan. Apaiz zanez, Jaungoikoari bere burua eskeiñi zion, gugatik eskeiñi ere, eta amaigabe ondasunak irabazi zizkigun. Errege ta Irakasle zanez, irabazi oiek guganatzeko bidea erakutsi zigun. Itz batean: gu erostearren eta guri nola bizi erakustearren etorri zitzaigun Kristo. Ona, ba, Kristo gure ispillu, gure bizi-lege. Sendatuak izan nai badegu, beraz, Jaungoikoaren adiskide izan nai badegu, Kristo'k bezelako bizikera egin bearrean gaude. Kristo'ren bizikera, berriz, Idazteunean dakusagu ta Idazteuna zuzen-zuzen adierazi diguten deunengan. Jaungoikoaganako Bitartekoa Kristo dugu; Kristogana-koa, deunak. Orrengatik on zaigu Kristo'ren irakatsiak ulertu, bete, adierazi ta azaldu dituzten deunai entzutea.

Deun oietako da Teresa deuna. Onen irakatsi batzuk azaldu nai nituzke. Oraingoan ordea, sar-
rera besterik ez dut egingo.

Teresa deunaren irakatsiak ze indar dute?

Teresa ez da teolojilari, etzuan, teoloji ikasaldirik izan, teoloji-espekulatibo libururik etzuan irakurri. Alaz ere aren espiritualidadea, aren irakatsiak sendo, mamitsu ta osasungarri dira. "Kristo Bera liburu-bizi izan baitzitzaion". Sendogarriok ikus ditzagun:

1) Jesukristoren bizitza sarritan gogaltzen

zuan, ori zitzaion gogalgairik xamurrena, atse-
gingarriena. Orrela Kristo txit ezagutu zuan eta
Argan bere burua ta besteena. Arentzat Kristo
zan dana: oiñarri ta janari. Teresa deunaren es-
piritualidadea arkaitz gainean eraikia dago.
(Urrengo lanetan obeto ikusiko dugu.).

2) Ba-dira ere Kristo oiñarritzat artu omen
zuten asko galduak. Eba-Adan'i antzo aundinaike-
riak biotza ikutu zien, zentzukeriak lilluratu
zitan. Teresa, ez. Teresa'ko adimen argia zuan,
naimen sendoa, Jaunaren antzeko izan nai bizi-bi-
zia. Gaizkin zentzukeriek lilluratu nai izan zu-
ten, baiña, Teresa'k irri egin zien. Nola? Bere
barrena Jaunaren ordekoari zabal-zabal irikita.
Ezezagun zerbait, ulertu ezin zuan illun zerbait
gertatzen zitzaionean, eleizgizon eta teolojila-
riak adierazten zien, auei guztia argi ta garbi
azaltzen zien, eta auen esanera beti etortzen zan.
Zeinbatetan Jaunarena ez baiña, aitorrentzulearen
esana egin zuan; poliki-poliki, ordea, aitorren-
tzulea Jaunaren naira etortzen zan. Ona, ba, Te-
resa Jaunak eta teolojilariak (garai artako jakin-
tsuenenak) eskolatuta: bera ere teologari.

3) Beste sendogarri bat ere ba-du Teresa'
ren barne-bizikerak: bere ta besteena esperientzia;
naiz beragan, naiz besteengan, ikusi ta ikasia, bes-
terik ez dago aren idaztietan. Onegatik Teresa'ren
eskiertasuna. Gai zailletan teorikaz ari dana er-
reztxo galdu diteke; gertatua eresten ari danak
ez du bildurrik.

Urrengoan asiko naiz espiritualidade edo
barne-bizikera au azaltzen. Antxo onetik urrengo-
etarako zubi bat jarri nai nuke orain: Jaungoikoa-
ren antz eta irudiko egiñak gera, Jainkoa ezagu-
tzeko eta maitatzeko, Jainkoarekin egoteko egiñak.
Oben egin ezkeror, ordea, ez genduan Jainkoa maite,
Jainkoagandik urrun geunden. Gu berriro Jainkoagana-
tzearren Jesukristo etorri zan. Jainkoaganatze oni
"deuntasun" deritzagu. Teresa daunagan ikusi nai
gendueke bera nola deundu zan eta gu ere nola deun-
du gindezken, deuntsunaren goi-maillaraiño nola
eldu gindezken, esan nai det.

Sekundino A. Karmeldarra.

[Ikus 32'garren orrian.]

BERGSON'EN PROBLEMA

Ez da problema bakarreko gizonik. Baiña edonork izan du, egunak joan eta egunak etorri, asteetan eta urteak zear ere, burua ta biotza, izate guzia, bete izan dion arazoren bat. Batez ere, zerbait egiten asterakoan, erabaki garaian. Bergson'ek ere izan zituen, ausaz, emen baztertu-ko ditudan problemarik franko. Emen Bergson'en problema deritzadana, bakarra zanik aitortu gabe, astekoan izana, dut ausnarkizun. Au da, bere filosofia berriaizanik, berritasunak izan ditzakean neurri ertsietan, mozkineta lanean edo zaborrak bazterreratzen nola asi zen adieraztea. Bere sistema, gero bergsonismoa izango zen filosofia, erei-teko ildoa zein lurretan aukeratu zuen. Obeto esan, aukera gutxi izaki, nola antolatu zituen sistema oinarriak jakin nai genuke. Ala ere, soluziñoa bera, beste baterako edo beste batentzat utziko dut.

Irudi zaitez, orain larogei urte ikastarotan dagoen gaxte begi luze bat: begiratzen duena ikusi gabe, entzuten duena ulertzen baiño sines-tenago. kultura berria oso-osorik irentsi naita, batez ere filosofia maitekiro laztantzen duela. Ikasle onek, beste askoren artean, izen bat, Henri Bergson izan zezakean.

Filosofia-zelaiak, noizbait naro, kalpar gorriak baizik etziren Bergson'en gaztaro garaian. Egoera garratza beraz, filosofiarentzat. Jakintzak eta aurrerapenak beren alorra landu-ala, filosofiari berea deuseztenago zioten. Zeinbait postuladu aizunek ito egin zituzten filosofiaren kemen eta aalik geienak. Metafisikarenak ia egin zuen. Bestalde, jakintzak bere gaillurrean, arro-

-arro, bere erdiespenez moskorturik, burua jaso zigun urte aietan. Taine, Spencer, Darwin, t.a. irakasle alguztidunak genituen.

Filosofiaren joran eta alegiñak oro matematismuan edo mekanizismuan amiltzen zijoazen. Edo, "espiritu posotibua" zen ur epeletik irtetzeko etzen inun kemenik. Edozerein gainetik eta noranaiko gai ipiñi nairik, arras ondatu ziguten arrazoimena. Ta ondamendiaren gorrian, esperientziaren, ikumenaren, oiperaiño eratsi zigute. Ta arrazoimenaren diskursua ikumenari badario, Absolutua ezagutzerik ez daukagu. Eta bidezko: dena zebillan Jainkorik ez bailitz. Anima, askatasuna... abade kontuak ziren! Nork ikusi edo nabari ditu oraiño, izan ere?

Ez diteke gizarte mekanizista ura bear bezela berritu. Sistema osoaren tolesgetzea litzake onena, baiña... baita aspergarriena ere. Dena dela, urte aietan asi ziren Bergson'en azi-eziketak. Idea-sail ura sistema baten zakuan lotua egon bailitz, andik edo emendik ler egin bearko zukean, ainbeste kontradiziño ezin barruan kokatuaz. Agirian utziko zuen muiñaren ustela. Baiña etzen ala. Mekanizismua Proteo bezelakoa zen. Bat ixillarazi orduko iratzarartzen zen bigarrena, gai arbuiatuari ikututxo bat egiñik. Edo sarri -erremín ematen guziori ixiltzeak- "jakintzak onela dio" erantzun oi zuten. Eta orri zer?

Jakintsu guztiek onetsi zutena, liburu denak ao bates aipatua, ezin jaramonik eman gabe utzi Bergson gazteak. Denak, irakasle ta ikasle, iritzi ta ideologia aiek bearrezkoak zirela uste zuten. Arrerapenak berekin zekazkin abarrak omen ziran. Jakintzak aurreratu ala, filosofia berri bat eraikiko bide bat zan, izadiaren ikertzea osatu eta lege positibuak eutsirik. Zein legek, orde? Etzekien inork. Bakoitzak bereari zerizkion postuladu irmo ta egiazkoa, ta geroztik bata bestearen ondoren geinak izan dira alde batera utziak. Aldiaren iraiña. Ta bizirik irten dutenak, apal-apal bere alorrean gelditu dira, filosofiari makurtuta. Baiña orduan orok zekiten: filosofia berria jakintzaren kimu bezela erneko zen.

Orain, ainbeste urtetara, ezin dugu ain aixxa alako zalaparta materialista ulertu. Gitxie-

nez, uste dugu, jakintzaren berpizte onen pare joango zela filosofiarena ere. Bai... Filosofia sekulako burrukan ari zitzagun. Gizajoa sujeturi eta objektuari mugak ipiñi eziñik. Ari zan, ari bazan.

Uroi gaitezen orain berriro Bergson'etzaz. Gezur aundiren arrisku gabe esan dezakegu "ivresse mécanistique" onek estaliko zuela begi bieta-raino, asieran beñipein. Ba-dakigu izan ere gaztea berrizalea dugula. Eskola onetan ikasia, bere kutsua dario, noski baino noskiago. Gaiñera, aundia da bere aurreneko lanetan bat De Rerum Natura'ren argitaldia izana. Baiña ez dugu emen xede Bergson'en ideologiaren gora-beerak jostea. arturik, alabaina, bere ikasgaiaren maila berezienen oarrarazteko lain beta.

Bergson'entzatonela zegoken gutxi gora-beera filosofiaren problema, ots, filosofiari bera-ri buruzko asiera-mailla: mekanizismua eta erlatibismua filosofia egitearen gaillurrak al ditugu? Ezin al dugu, esperientzia ta jakintza arbuiatu gabe, egia absolutua, filosofia espiritualistago bat sortu? Aurrekoeri begiratzuz, etzuen kemen eta berotasun aundirik jasoko. Ez baizituen gelegi ezagutuko Aristotele t.a. Descartes eta Kant, bi aitatzeko, etziren berak nai bezela igo. Filosofia zaarrak, denak zioten, jakintzaren aurka zeuden, eta berriak, zion bere baitan, materiari josi-egiak.

Alderdi aundia du urak iturrian edan edo erreka zulo orizta batean. Arabera filosofia batek, irakaslearengan edo ikaslearengan, ta alderdi onen zio ta karia ez da beti irakaslearen adimen aparta edo jarraitzailleen geldotasuna. Ez, eta gelenetan bestela gertatu oi da. Irakaslearen postuladu, esate bati arreta bizi-egia ematen zaio ta frase orretatik irakasleak gaitsetsiko zituen ondorenak ateratzen dituzte ikasleek. Au dena, itzari gogoari baino ardura ta garrantzi aundia-go erasten zaiolako. Ez gaitu arritzen izpirik beti sesioan eta alkarrekin konpondu eziñik izatea ikasleak. Irakasle bakarra izanik ere, bakoitzak bere tankera berezia ematen dionez ikasgaiari, alabear. Sistema batek, onegatik, soñeko ta kera asko izan ditzake. Emendik, apika, askori

egin zekizkieken kritikaen ugaria ta ezberdiña. Bergsonismua, ikasleena ta irakaslearena, oso da liferentea, niretzat bederen. Ta au, ikasleek xedea, gogo, aaztu egin zutelako.

Homero'k, Akile'k, bezela oiñorpoa zulkorra du, zeatzean asmatu ezkeru. Baiña oso makurturik ibilli bearko du Homero'ri orpoa sakitu nai dionak. Ta lotsagabeki ain makurtzenegi den au kritikaria duzu. Ez kritikari oro batzuk baiño. Ta csango al dut? Katolikuok itxiak eta itsuak izan gera maiz. Ez denak, emen ere... Gure iritzia ta fedea etzutenak ez ditugu ulertu nai izan, eta gogorregiak izan gatzazkie. Esku artean darabilgunetik ez irtetzeagatik, ona gertakizun bat: Il zen Bergson, katoliku biurtzeko leia gori batek barnea irakiñarazten ziola, baiña urrats aundia, beltza ere, eman gabe. Arrokeriagatik zela esan zuen norbaitek. Zergatik ain arrazoi maltzurra, beste bat, jatorragorik genuenean? Gaiñera Bergson'ek berak adierazi zuen arrazoi judutarren kontrako nazismuaren persekuziñoa zela. Judutarra baigenuen "L'Evolution Creatrice"ren aita, ta bere enda anaiek anaitzat ukan zezatela nai zuen. Etzezala iñork apostata bat izan zanik esan. Bildur zan, katoliko egiñik, judutar fededun zenbaitek bere izateari uko egitearen erruduntzat jotzea.

Bi kritika egin genezaizkieke Bergsonismuari. Bat aistemari: txoildurik, sorta batean loturik, Bergson'en irakatsia objetibidade kolorez agertzen zaigu, unibersalidade soñeko. Bigarrena, esan zuena aaztuaz, esan nai izan zuenaren aztertuz: Xedeko bergsonismua.

Ez da lan errexa itz eta lerro batzuen oztopean idazleak esan naja asmatzea. Ta beti ere, nork esan dezaiguke "zuk diozu egia", idazlea illa izanik? Ipotesi utsean arituko giñake. Baiña merezi du ainbeste naikunde ta joran zituen arek. Gogo dirdaitsu ta maratz ura loitua ta erdeiñatua izan ditekela gaur...


Mintzatu gera leen materialismuatzaz. Esan dugu Bergson kutsatua irten zela. Ondorioz, bizitza guztiko zeregiña izan zuen Bergson'ek materialismuaren lorra aizatzea. Bergson jarki zi-


tzaion leenengo ur-*ejola* amorratuari. Bera matematika ta fisika arriak oinak odoltzen zizkioten bidean, egi billa, ibiltari bakar zen. Zer gutxiago, an emenka erori bazen, edo noizbeinka beltzune bat edo beste badu? Mekanizismuak aurkezten etzuenaren billa psikologiara jo zuen: esperientzia onartu, baina sakonagotu. Etzen esku utsik irten: gogoaren eta gorputzaren paralelismua ukatu, abereen eta gizonen naturaleza zeindu, t.a. Miresteakoak berak aurkituak. Aurkituak esan dut, eta miresteakoak beraz. Ez dut esan nai bere aurretik inork ezagutu etzituuenik. Baina bai ordurako zearo aaztuak zeudena. Bergson'ek ziardun garaian Aristotele'tik beerako guztiak ixeka-gai soil ziren. Filosofia kristauaren tesi jatorrak, prailleentzat egiñak bezela ikusiak. Ta miresteakoak ageri bearrik ere ez dago. Ez aute gezurrez deitu Bergson "gogoaren filosofilaria".

Dezagun bukatzeko aldarrika: jariokazko (devenir'ezko) filosofia neguko lore izaki, lore ederra dugu. Bi meritu batean. Omen eta itzal eun urte direla jaio zen Henri Bergson'i.

Azurmendi'tar Joxe, ofm.

Erri-Berri'n filosofilari





**KULTURA
IAKINTZA
ANTZE**

OTEITZA'TAR GORKA

Begietan garra, eskuetan espiritu-zigorra, gorputz guzian egonezin kiskalgarri bat: au dena ta geiagorik ere ba-du Oteitzak itz egitean. Oteitza ez da bere baitan daramakienarentzat bi-zi, orain ez duen, eta agian, inoiz izango ez duen zerbaitentzat baino: "Ni, palta zaidana naiz" esango digu berak. Oteitzak ez du ezpainez itz egiten, gorputzez ta arima osoz baizik; beragan ezpiñek ainbat esanbear dute bere keiñu ta arpegiak. Bere gizatasuna dena geldiezin ta urduria da.

... ta Oteitza euskalduna dugu. Oteitza'tar Gorka'k Orio'ko kai-ertzean, 1908'an ekin zion bere erio-bizitzari, beretzat bizitza erio-gudaketa bat baita. Baina Oteitza'ri, bere lenen galtzak beizn laister, txikitu zitzaion jaloterria, ta bereala utzi zuen Orio atzera. Le-karotz'en egin zizkigun bere Batxilleratuko ikas-taldiak, ta geroxeago Madrillen dugu gaztea, Me-dikutza ikasteko asmoarekin-edo.

Baina udazkeneko goiz batean, Unibersi-dadera doala, ara zer irakurtzen duen egunerokoan: "21'an jaiotakoek ez dute egikortasunik izango". Ta Oteitzak bere kolkorako: "Ez, e? Ikusiko diagu,

ba, norainoko arrazoa dekan..." Bertan bera Medikutza zokoratu, Capuz'en eskultura-ikastola laga, ta BERE bideari jarraitzeko asmoa artzen du. Zertarako zituen berak Medikutza ta Capuz'ek egiñarazten zizkion eskaiolazko iruditxo "apain" aiek? Oteitza'k etzuen irudirik bear, Oteitza'k metafisika bear zuen, irudiaren barne-izatea.

"Buru baten aurrean, gonbazioz, onela galdetzen nion nere buruari: Zertan zetzak buru onen garrantzia? Nandik zetorkiok oni bere"zer" berezi ta ajolatsu ori? Zergatik dik buru onek balio apartekorik? Buru ura noren irudi zan gutxi ajola neri, nik bere zergatia jakin nai nuen."

Baifia gaztearen galdera auentzat etzuen iñork erantzunik izan. Billaketa amaigabea gure mutillarena. Oteitza gudari izan da beti: bere buruarekin ta bereziki palta zailonarekin gudari. Gizonari "orainak" ezartzen dion kontenta-eziña, Oteitza'gan zama ezinastindua ta indar bultzatzailea da.

Donosti'ko gipuzkoar ertilarien Biurterokoan (Bienal) -bi urteetan gainera, 1931 eta 1933'an- leenen sariak irabazten ditu. Urrengo urtean, 1934'an, erakusketa bat irikitzen du; eta 1935'an aberria utzirik, urruti-minari erantzunez, Argentina'ra doa. Garai au da Oteitza'ren estualditsuen. Lanean gogor jarduten da ta urte berean beste erakusaldi bat egiten du. Gerorago, baita Chile'ko Santiago'n ere; baiña bere barneak ez dio bizitzak nai luken atsedenek opa. Gizon onek ote-arantzaz ta txingarrez beterik daramaki bere arima. "Enbil" du bigarren abizena, ta "alderdi goibela" adierazi nai omen du, ta Oteitza'k errailetan ditu iñoiz elburura elduezinaren biotz-erre ta tristura eragilleak.

1941'an Buenos Aires'ko "Escuela Nacional de Cerámica" ikastetxean irakasle aurkitzen dugu. E'en ere ez du, ordea, irauten, eta 42'an Colombia'n da, Gobernuak deituta, bertako zeramika-ikastola eratzen. Urte auetan estetika-teoria berri bat sortzen ari da. Emen, Colombia'n aurkitu dituen ta bere baitan jaio direnak, 1952'an liburuxka batean emango dizkigu: "Interpretación estética de la estatuaria megalítica americana."

Oteitza'k ez du giza-aurpegirik nai: axalkeriak gogaiturik dauka; giza-muiña ta benetako izatea bear ditu. Eskulturagille onek, bere "irudien" bidez, gizonon metafisika eman nai digu. Oteitza'ren "irudiek" giza erio-larritasuna-gandik igeska goazenon babesleku izan nai dute. Gizonon izaki-muiña eriotza-bildur gorri ori da, ta gure illezkortasun-leiari erantzun itxaropen-tsu bat emango dien zerbait aurkitu nai du Oteitza'k bere irudietan.

Oteitza'ren lana ez dago orainarteko estetika-teoriaz epaitzerik, bereak beste jomuga baitu. Bestela zera esan dezaioke kritikariari: "irudiak? Aurpegi negarti edo muxu irripartsuak bear ditut? Uadi, ospa emendik, ez duk ori nere eginkizuna. Ortarako ba-duk erretzatugillea, oa beragana."

1944'an idazten du bere "Amerika'ko er-tilariari eskutitza" famatua. Bereala Bogotá, Quito, Trujillo, t.a. urietako unibersidadeetan bere ausnarketaz idoro dituen ideak zabaltzen da-bilkigu gure euskaldun kezkatia. Ta 1948'an Buenos Aires'ko kaleetan topa dezakegu berriro. Azkenik, urte berean itzultzen da Euskalerrira.

Donosti'an Felipe IV'ri eraiki bear zio-ten monumenturako berak eramaten norgeiagoketa. 1951'an Milano'ko Irurterokoan oorezko diploma ematen diote eta Arantzazu'ko irudi-lana osatzeko txapelketa ere irabazten du. London'en, 1953'an, Politika-Giltzapetu Ezezagunaren oroigarria jasotzeko, Espaini'koetatik bera da aukeratzen duten bakarra. Urrengo urtean Espaini'ko Arkitetura Sariaz goraltzen dute gure oriotarra. 1957'an ematen diote eskulturagilleen Nobel Saria deitu dezakeguna: Sao Paulo'ko Biurterokoan Leenen Saria. Berrogeitairu errietakoekin burruka bizian berak irabazi du. Iparamerika, England, Frantzia... denok euskaldun onen aurrean makurtu bearrean aurkitu dira.

Oteitza'k jaiotzatik eriotzaraiño ekiñaldia du, ez dio bere lanari "amenik" ezartzen. Orain illabete batzuek, beste sariketa bat Euskal-erri'ratu digu ia. Montevideo'n, Batlle Ordóñez Lendakariaren omenez monumendu bat jasotzera doaz,

ta 73 saio-lanetatik iru aukeratu dituzte, ta Oteitza'rena dugu auetako bat. Datorren Otsaillean jakingo dugu azken erabakia.

Gure txaloenik beroenak merezi ditu euskal-bikaintasuna ta izen-ona munquan-zear barreiatzen dabillen benetako gizandi onek.


• • •

Euskaldun artean euskal-seme au ezagutaraztearren, galdera batzu aurkeztu dizkiogu, ta berak biotz onez ta berealaxe erantzun dizkizu. Or daukazu dena.

Ba-dira irakurleen artean astunkeririk ezin irentsi dutenak; auk erditik aurrera asi ditezela. Irakurle guzior izenean, eskerrikasko Oteitza Jaunari.

Intxausti'tar Joseba An. ofm.

- Arantzazu'koa -



ARTE BERRI BATA?

- Zure artista-ideiak agertzeko zein gai edo bide dituzu? Esaiguzu, mesedez, nola latzen dituzun?

- Darabilzkidan gaietaz eta nere lan-keratzaz zera esango dizut bakarrik: irikitzen dira eskuak, zabaltzen hesoak, eta nere lana as-tean ez daukat ezertxo ere. Ala ere, jokaera onek ba-du maitasun-taupada aundi bat, baita elkar-kon-trakotasun bat ere: dena batzeko nai bizi bat da-go emen, eta, axalez eta leenen-begiradaz, ald-tua baino balio gutxiagokoa izango dan izakera eraberrituak emateko egarria, onela gizakiak zer-bait berri ta baliotsuagorik izan dezan, nigan jaio dan antzaldatzea erakutsi, ta begiratzaille ta lanaren erdikideagan eraberritze bera sortzen lagun dezagun.

Usgunea, espazioa, ta errealidade usma-garriaren arpegierak batetik, materiala ta lekua bestetik, onengandik jasota eskuetan darabilkidan kanpoko temarekin bat: oiek guziak dituzu egintza sortarazlean eskuarteko langai ta elemendusaila. Auen ondoren, ideazko beste elemendusail bat da-tor; onela laburtu dezakegu: gere aldiko ideia bereziek emandako, eta geometria-komposizioa edo erakuntzakiko (estruktura) konzetua, ta eskultu-ra-lanari arkitekturan dagokion tokiak ta lurral-de inguruek ezartzen didaten asmoa. Espaziozko

bi izaki-talde oiek elkar-lotzen ditut leenengoa aldizko errealdade-legepean, ta bigarrena aldigabekoa. Lan onen ondorioa izakera astratuzko zera bat da; estetikuki baliotsua dan espaziozko erreinu bat ba-daukagu. Bere bidez, gure esistentzi-larritasunaren iturburu ta ertiaren objektu metafisikoa dan bizitzazko aldia edo barne-bizitza irudi bihurtuko dut. Ona, ba, kreazio-gosearen barne ixillean erlijiozko saibazio-leia bat nola daukagun; erlijio-egarri ori, ikusgarria izan dedin, gizartean politika bihurtzen da.

- Zure erti-lanetan zer eginkizun du Izadiak? Zure ertia Izadiaren aldeko edo aurkakoa da? Zein artueman dituzte Izadiak eta zure erti-bideak?

- Daukadana Izadia da, palta zaidana ez da Izadia. Ni metafisika-langille naiz, egaka noa Izadiaren kontra, Idazia birrindu egiten dut. Txoko au espazio naturalean ustutzea lortu dudanean, nere eskultura amaitu dut: izate-bizileku bihurtuaz, irudia eragabetu ta nere espirituzko egontoki egin dudanean, bukatu dut nere lana.

- Esaidazu, mesedez, zure erti-lanean usguneak, espazioak, duen eginbearra. Zer da erlijiozko espazioa?

- Orri buruz zerbait jardun naiz. Erlijiozko espaziotzaz zerbait esan dezaket oraindik. Formak aldizko dinamika batez elkartuaz, gaurko erti-joerak lana erti-mekaniskuz kutsatu nai dute. Aldi ta mogimenduak oraingo errealdadearen irudiz jaxten ditu erti onek, edo artistaren aldi sujetibu ta esistentzi-larriz bestela. Bi joera auetan -formazaleena ta formagabea- errealdadeak edo gizakiok daukan zerbait berritzen da. Ni, berri, palta zaidanaren billa noa: guzion larri-ertitasun onentzat bistazko elementu utsez eratua izango dan irtebide bat nai dut; gure bizitzaren kili-koloak eta zentzumen prestatugabe eta kanpotik, naasian, datozkigun inpresioen aurka bearrezko babesgabetasunak sortzen baitugute ori.

Erti onen izakera ixildueziñak eta "iruditetasunak" entzule ta ikusle uts bihurtzen dute gizona. Neretzat ertiaren eginkizunak erabat beste-

lakoa izan bear du: gaurko ertiaren jomuga bear-rekoena, gere espazio-sentimenaren sendabidez, giza-izatea osatzea da. Erti-lanak, aldiaren erak ezereztuaz, ixillaraziaz, au da, espazio ustuz, artzaillea (receptivo) izan bear du. Onela, gizonaren begira-egotea nortasunaren barnean egite bikainera igoarazten dut. Izan ere, au da egizko erlijioari dagokion jokaera, erlijiozko arkitektura izan nai duenari ez baitagokio erti ta espazioen izakera artzaillea besterik.

- Askotan entzun dizugu ertiaren betekizuna gizonaren salbapena dena: zer esan nai duzu? Zer ta nolakoa da ertiak eman dezaigukean salbazio ori? Zer gaizkatzen du artiak?

- Ertiak gizonaren barne-aberastasunak lanera beartzen ditu, ta ugaritu egiten. Estetika aldetik, espiritu-sendaketa bat dei genezake au. Ertiak, kanpoko munduan dakusgun ordena aldatu egiten du, norbera sakonkiago ezagutzera beartzen gaitu ta sentimenaren agargarri izango dan gere konzientziko atalik barnekorrena lanera bultzatzen du.

Gure eguneroko espazio-esperientzi sumagarriaren erak ere itz egin dezaten, ertiak izkuntza berria ematen digu. Gizonak bere askatasuna zabaldu ta bistazko mirari etengabearen egia beretu egin bear du. Eziketa ontan diardu ertiak, bere eginkisuna gizonaren espirituzko salbazioa baita.

Gaurko erlijio-ezikuntzak porrot egin duela esango nuke, ta onen arrazeia sentimenari dagokien pareko estetika-edukazio bat albean ez daramalake ote dan nago. Asis'ko Prantzisko'k espirituzko ezikuntza ezinbanatu bi aukla bizi ta irakatsi zuen. Izadiaren sorkarrietatik galdezka ta gizonaren erti-laneta, prantzunez daukagun espiritua ulertzean, ezin ditke erlijio-fede bat benetan bizi, berarekin dakarzkigun poesi-zirikaldien bizizko poza gabe.

- Zertan datza zure erti-teoriaren beresitasuna? Zein desberdintasun dute zure orrek eta orainarteko tradiziozkoak?

- Ez dago oituzko erti-teoria bakarrik, asko baiño, kultura-aldiari ta giza-bizi-

tokiari dagokienez. Ertia ez da inoiz gelditzen. Aro bakoitzak sortzen du bere ertia, ta aro bakoitzaren barruan oraindik, artista bakoitza gurka jeiki diteke, ta erabaki berriekin bide berriari ekin. Alde ontatik, nik ez duk inoizko joerarekin eztabaidarik, nere aldian kokatu naiz, ta Izadiatzaz ta gere lanean daramakigun bideatzaz zerbait zeaztea bururatu zait.

Gaurko eskultura, Izadi edo gizonarekin naasturik, mogimendua iruditu ta sortzera badoa, nik irudiarentzat, espiritu-bizileku izan ditekera, bakardade ustua, espaziozko ixillune irikia, bilatzen dut. Exerleku ta erretiro bat nai dut.

- Erriaren estetika-ezikuntza lortzeko zein bidei derizkiezu egokienak? Au iritxi ditekela uste al duzu?

- Ba-da ertiaren aberastasun zabala, edo bertatik zerbait ulertzeko, profesiozko ezikuntza bat. Baina erti-lanak ba-du edukazioarekin beste erlazio bat ere. Ertiak, aurrean egoteaz bakarrik ere, gizartea eragin egiten du. Gizarte bat, erti-lanak ez ulertu arren, ezta berdina lan oien aurrean edo oiek gabe. Erti-lan bat ez ulertu arren, aurrean ba-daukat, emen bertan, baina apur bat arutzaxeago, daukadan zerbaitek ikutua sumatzen dut nere burua. Gizon batek gainerakuon liferentea izateko, aski du bere buruari galdera desberdiñak zuzentzea, beti izango du nolabaiteko erantzunen bat. Bere buruari ematen dizkion erantzun aukerak edatzeak askatasunaren kontzientzia ta ezikuntza-egarria zabalagotzea da.

- Zure erti-billakakuntzan zer izan da Arantzazu? Ezer esan nai al du zure artista bizitzan Arantzazu'k?

- Galdera au auskorra da oso ta asmo sakonez egin didazula derizkiot. Zabalki ta edatsu erantzun nai nizuke, baina ez dakit nola laburtu. Nere espiritu-bizitzan Arantzazu'k bi gauza esan nai ditu. Erti-aldetik, lagunekin elkar-turik ta bat eginda, batasun onek eskatzen duen menpetasunez, erti-lanari ekitea; ta eskultura aldetik, orko arazoaren askabiderako, kondizio gogor ta nekezeneri aurpegi eman bearra, Arantza-

zu'n, irudia egiteko, batu bear nituen langaiek erantzunbear ta nekerik aundienak baitzituzten: erlijio-gaia, arkitektura ta parajea, etorkizunari begira gure erri-erlijioari eman bear diogun esanaia, neure erlijio ikusera, ertiatzaz gaur-egun dagon ideia ta neuk dudan erizpidea, gaurko kondaira unea, ta Arantzazu'tzaz erriak duen sentipena.

Gai auek denak elkartzean, aurretik ausnartu bear izan ditudan zenbait erantzunertan sortzen da soluzioa. Azken erabakia kanpotik, edo langai bakar batetik, epaitu nai izatea, darabilkidan errealidadea estetika aldetik gaizki epaitu ta kanpoan uztea da. Eskultura lanean ez da erejian erortzen, zuzenago da erejian igo egin nintzela esatea. Arantzazu'n lortu dudan beste ikasten bat. Nigan estetikazko ta erlijio-salbakuntza bat egin dira. Erlijiozko ta estetika-bizitzak ez dira banatu. Arantzazu'n konturatu naiz: irudiak ta elizak gauza berdiña esaten didate. Eskulturagillearentzat egun bakoitza igandea da, espiritu-salbaziorako emandako eguna.

- Zein da Arantzazu'n eman nai diguzun erlijio ta erti-mezua?

- Neurea, esan dizudan au. Ta ain da izan ere tolesgabe ta prantziskotarra. Erti-sumamenak gizona -bere bizitza mandu ta guzi-erlijio-antzaldatu egiten du. Estatuari ematen zaion maitasuna, baldintza ta ordu jakiñik gabeko maitasuna da. Gizakia apostolu biurtzen duen maitasun bera da arria irudi egiten duena ere. Onela, gauza denak goraka pisatzen dute. Ikusigabeak sinistea da erlijio-fedea; baiña erti-sinismena ikusten ari geran denak sinistea da. Bistazko (vusual) sumamenik gabe gizonak bere bizitza baztertu egiten du, anka bakarka dabil, pekatudun aberearen antzera astun eta goibel, argiz ta mirariz betetako illunbean.

- Zure ustez, euskaldunak ba al du ertietan etorkizun berezirik? Bere abendak joera apartekorik ematen al dio?

- Ez dut arraza-zalekerian federik, baiña dena sinisten dudanez, onetzaz ere zerbait

pentsa dezaket. Erri guzior errailetan ba-da enda bakar egiten gaituen zerbait: guzior erio-etorkizuna. Esistentziaren sentipen ikaragarria au sakonago errotua daukan gizarteak izango du erti-joera bikainagoa. Onelakoa dugu gure Euskalerrria, baina asabengandik jaso dugun erlijio-igesbideak, erti-biderako bigundu, xamurtu, egin gaitu. Ertie gabe, ordea, erlijioa ere makaldu egiten da.

Izkuntza-ertian, berriz, ba-ditugu, bai arraza-apartekotasunak. Menendez Pidal'ek dionez, lateratik, euskera dala bide, gaztelera -ta ez gallego, portuges edo katalanera- jaio bada gure izakeraren, mekanismu auen, berezitasun au aztertu ta argitzen sailtu bear genuke, ez baitira noski ain ezkutuak, ta gainera zirikatzaile ta biderakusle apartekoak izan bailitzaizkiguke. Nere us-tez, au da euskal-billaketaren eginkizun prexiko-koen ta gaurkoena.

Gure kultura-politika oso ertsia izan da beti: ez du inoiz aundi nairik izan. Arriber-ridun (neolitikoa) aroa ezkerre gure erriaren bar-ne-indarrak ikutugabe dauzkagu. Nola gaude gure olerti, gure filosofia, gure antzertia, gure bai-leta, gure nobela ta gure ertia emateko? Ba al dakigu au dena zer dan, nola irakasten dan? Tele-bisioa, urrutikuskiña, gure erri ta baserrietan sartuko dan berealako egun artan pentsatzen dut. Adimen-mailia gailletakoak izan bear duten gu-re programaen kontrol, asmaketa ta teknika zuzen-daritzat eramateko gauza ez bagera, ajolagabeke-riak menperatzen bagaitu, baztertu ditzakegu gu-re ametsak: utzi ditzakegu auzoko ermitatxoak, dalako "Amigos del Pais" oien gizarteak, museue-tan izango baita gure bizitokia: literatura ta kondaira museu-pitxi biurtuko zaizkigu, ta gu-geu arzagizko irudiak baino ez gerateke.

Oteitza'tar Gorka

AURRERAPENA IXILTASUNAREN — TRUKE —

"Ezkutu-ezkutuko bizitza darama Jesus' ek Aldareko Sakramentu txit santuan. Jaungoikozko bizitzan bear-bearrezko diran ixiltasun eta bakartasuna goratzen ditu". [1]

Kristau biotzetan Jainkozko bizitza ozten, aultzen omen dijoa...

• • •

Ez da oraingoa, gaurko gizartearen "etsaia" materikeria dala esatea. Ta, au egia da. Gaurko aurrerapen eta asmakizun arrigarri auek dirala bide, ogeigarren mendeko gizaldiak materi kutsua izango du, gizaldi beronen zantzu bereizgarria.

• • •

"Teillatuan xir-xir jotzen duan euria, belardiak emeki orrazten ditun aizea, ondarrari musu damaion itsasoa ta txinpart darion sua, ona lau gauza paketsu! Aueri so egin dezaiegun" -dio Donald Culross Peattie'k, Eta jarraitzen du: "Salomon'ek bere gauza arrigarrietan ez ditu izendatzen, gaur-egun ordea beren pake-oiartzunak arrigarriak zaizkigu benetan; etengabeko "bonbardeo" erdian bizi geralarik gauza ixil ta paketsuak entzuten aaztu egin baizaigu" [2].

Baiña, ala ta guztiz ere, Jainkoak ludi au irazan zuanean, pake-ixiltasuna ludi sortu-berri aren osagarri zan. Millaka urteetan Sinai mendiko trumoi dunbada ta tximist-zartak jota lurreratzen zan zuaitzar baten karraskadak izango ziran ludi ontako dunbarradarik aundienak.

Ez dezagula uste, ordea, pake ixil ura, ixiltasun illa -illobietakoaren antzeko edo- izango zanik. Izadi beraren ixiltasuna zan ura; bizia, alegia. Xamorroen burruna, txorinoen abestia, zumartxurien ostoen txalo-ots biguiña ta elur malute lurrera erortze ixillak osatzen zuten erezkitasuna zan ura!

Orain ogetamar bat urte, olako ixiltasun pittin bat txastatzea bidezko zitzaigun -dio Culross Peattie'k. Beronen aurtzaroko zaratarik aundienak berriz, erri inguruan zear patxadan igaro oi zan trenaren triki-traka ta erri-pestetako etxaperu aundiaren danbada izan oi omen ziran...

Gaur ez da orrela, ordea.

Salerosketa, maillarik gorenera iritxi da. Ezin konta ainbat lau kurpilleko -geiagokoak ere bai- bide-zabalean aruntz-onuntz ipini ditu; denak presaka ibiltzera beartuak dirudite, gainera. Auek sortu duten iskanbil eta zarata, berriz, ez du neuririk. Orrela jarraitzera, ziur gaude, beribil guztiak turuta biziagoen bearrean lirakela... Ibilkariaren belarriak erruki!...

Zarata onen aurka zerbait egitekotan asiak dira. Orrela, uri askotan beribillen turut-otsak debekatuak daude. Baiña, ez dugu ezertxo irabazi. Bide bazterretik doan ibilkariarentzat ez baida turut-otsa baiña atsegingarriagoa, beribil bakoitzeko zuzendarien oi ta orruak entzutea. Jakiña ba; aurrera joatekotan, beribil zuzendariak bete bear turutaren uts-unea.

Inglaterra'n ke-isats darien egazkin oiek dirala-ta Greenham Common erritxoak, inguruko egazkin-zelai batetik sei-motorrekiko egazkin oiek egatzen asiak diran ezkerre, inpernua omen dirudi. Umeak ikaraz dardar omen dauzkate. Loa ezinezkoa omen da. Eta etxeak oinarrietaraino astintzen omen dituzte...!

Liakurle maite, zeuk oar duzu onezkero

eguneko iskanbil eta zarata. Urietan batez ere, egun argitzetik illuna arte ez-ezik, gauberdi aldean ere musika, oiua ta zarata nai ainbat izango duzu. Oraintxe gutxitzen baidijoaz pake-ixilla ta bakardadea ezagutzena dituztenak. Onela, gizartea bera ere, aurrerapen onek berekin dakarren burrunda-ots onetan kutsutu ez bada, arriskuan arkitzen da. Jaiegun askotan -igandero ez bada-gaueko ordu beranduetan giza-taldeak oiuka, aruntz-onuntz soma oi baiditugu. Zer dala-ta? Aurrerapen mendean bizi diralarik, aurrerapen onek berekin dakarren zaratarekin kutsutu nunbait...

Irrati-giltza ikutzea naikoa da etxe osoa dardar ipintzeko. "Foot-ball" jolas aldiko (izen au merezi ote?) ordua baldin bada batez ere. Erruki orduan auzoak! Alare "otsak" edo "zaratak" norbait nekatu edo azarrerazi dezake-nik oso gutxiri bururatzen zie.

Ta, politiku-soroan, zer? Ots asko ta gauza garbirik ez.

Inoiz ez bezelako mugimentua darabilte. Dena bosteko luzatze, alkar ikuste, itzaldi ta batzar! Au da, dirudinez, gaurko politikoen zer-egin guzia... Ta?... zera: ots ugari baiña, guzi oien ondorenik ageri ez. Binbitartean egi erdia eskax mundu zabalean zear. Bakuntasuna berriz, kukusu jantzian izparringietan.

Politiku-gizonok izan ere, oinkada bat eman orduko erretratu egillez eta izparringietako bialiez inguratuak, arkitzen dira. Errukarriak! Urrela, orain irri, gero par; zeresanik naiz-eta euki ez, zerbait beti esan bearrean, tira, ez da arritzeko gaurko egoera. "ots asko ta mami gutxi" itz batean.

. . .

Ba-dator aurrerapena bere burrunda lagun duala; ixiltasuna, ordea, ba-boa! Ta onek, gauza asko daramazki berekin!

Orregatik, gaur-egun kristauori zail egiten zaigu Augustin santuaren, "noli foras ire, in te redi, in interiore homine habitat veritas" oni jarraitzea. Ta santu beronen beste au esan

genezake: "Besteren bizia jakin-miña dute, ta berena zuzentzeko alper dira. Zertarako nai ditate entzun nor naizan, ta Zugandik ez dute entzun nai nor diran?" [3].

Ixiltasuna, pake-ixilla ba-doazkigu! Gizonari, ordea, bear-bearrezkoak izan auek. Erri zuzendarieri erri-problema sakon aztertu ta zuzen erabaki ondoren, au, zorion bidean eraman dezaten. Ta guzi-guziori batez ere, bizitz ontako gure problema nagusienari -arima zeruratzeari, alegia- arretaz ekin dezaiozun.

ERRI-ZUZENDARIEN egitekoa errien problema zuzenki erabakitzen saiatzea ta zorion bidean oni laguntzea da.

Egungo idazle batek onela dio: "Majinat arrisku sortzen ditu nork bere gogamenak entzuterik ez daukan mundu ontan bizi bearrak".

Ta, ez dezagula uste, bonbaz kargaturiko ke-isats darien egazkin oiek beren burrundaren problema bakarrik sortzen dutenik. Urrun olako amets ñañoak! Onezaz gaiñera, egungo gizadiak ba-ditu beste amaika buruauste beltz. Baiña, buruauste auek bear bezela erabaki al ditezke, pake-ixillean problema auetan sakon murgildu ezik?

Aurrerapen onek sortzen ditun problema ezin ditzake gizadiak erabaki ta argitu, ixiltasun-giro ta pake lasai baten sakon gogaldu ta aztertu ezik -dio Culross Peattie'k.

Ixiltasunak gizona obeki lan egiteko gertutzen du; zuzenki itzegiteko t.a. Orrela, Marco Aurelio'k "Meditaciones" delakoan, "Paketsu-ixillaz itz egitean adimenaren eratze zuzenari buruz ari naiz" -dio. Ta jarraitzen du: "Sendagileak bere tresnak gertu euki oi ditu, estuasun bearrean esku bota dezaien. Guk ere gure gogamenak gertu euki bear ditugu Jainko ta gizonen gauzak uler ditzagun". Orrela, erri-zuzendaria ere ixiltasuna lagun, errien problema ta bearrak, al izatera, aurrez ikusirik, lenbaitleen erabaki ta osatzen saia bear luteke.

Erri asko, gaur-egun, pakea izango edo ez zalantzan urduri arkitzen dira. Pake sendo baten bidez errien biotzak baretzea ere erri-zuzendarieri dagokie. Ez dala gauza erreza? Denak zin-

-ziñez egizko pake oso bat nai izatea naikoa litzake ortarako. Ta gaur-egun, gizon auek oro, pakea gora ta pakea beera ez dabilta ba? Pakea aoan erabiltzea ez izan naikoa!

Errien pakea, berriz, "askatasun lasai-lasaia da" XXIII'gn. Yon Aita Santuak aukeratuak, aukeratuazian ondorengo leenen itzaldia, esan zuañez. Oraindik ba-daukate, beraz, zeregiña.

"Egungo gizabidea irentsi-gose ta sukalde bakoitzean gozartu bear dan atsegin-pakea kentugogo duan" (Pio XII'garrenaren itzak dira auek) zarata onek erri-zuzendariori, errien zorion alde benetan alegintzea, ez dezaizuela galerazi beintzat!

ARIMAREN BIZITZAN ixiltasunak duan garrantzia berriz, esan bearrik ez dago. Santutasun gaillurra ixiltasunean zear joanda lortu baidute orainarteko gizon guztiek. Etzuten, bear bada, bizitza osoa ixiltasun etengabea igaroko; bai zera! Zarata artean biziarren, ordea, pake-ixilla maiz aurkitu oi zuten. Ta or dago kokka!

Lagundi-sortzaille diran santu guztiak beren Lagundietako araudia osatzean toki berezi bat gorde diote ixiltasunari. Jakin, ondo baizekiten santutasun bidean ixiltasunak duen garrantzia.

Ixiltasunzale dana, Jaungoikoarekin batu-ago egiñik bizi da, ta jakina, orrela Jainko-eskerra oparago du beregan.

Toki ixil eta paketsu batean otoitz egitea askoz errezago zaigu. Zergatik ote? Orrela etsai bat bakarrik dugulako aurka. Bestela berriz, bi izango genituzke: irudimena ta kanpoko zarata.

"Ixillean eta pakean egiten du aurrera gizon zintzoak eta Liburu Santuetako izkutukiak antxen ikasten ditu" -dio "Kristo'ren Antz-Bidea'k" [4]. "Ixiltasunak zeru-goietara jasotzen gaitu ta Jaungoikoaren abots miragarria entzuteko gertutzen" -zian berriz, Pio XII'garrenak.

o o o

Ixiltasuna ba-boa, ta berarekin gizonen biotzetatik erlijioko gauzenganako joera ere ba ote daraman bildur naiz. Au gabe ezin baidute

Kristo'ren Berri-Onaren goxoa txastatu. Egungo zaratak galerazten die..!

Ixiltasuna nun arkitu?

Jendez gainez darion urian, kale-ertzean oinlada bat ezin emanik bein edo bein erneatu zera noski, irakurle. Olako batean, patxadan arnas artzearren edo, eleiz batean sartzea ere gertatu zaizu, noski. Ango ixiltasuna! Onek erabat biotz-ukitu zizun. Gogorapen sakonak joan-etorri zabilzikizun, Ta, ixiltasuna ez-ezik bakardadea ere arkitu zenun. Ez "Aita gure", ez "Agur Mari" bat etzenun errezatu baina... ala ta guziz ere otoitz egin zendulakoan irten zinan. Barrua alai zendukazun.

Etxengabeko zarata ta iskanbillean bizi zeran gizartea, "Si sciress donum Dei, Jainkoaren doaia bazenezazu!" [5] etzenduke gaurko aurrerapenak dirala bide erlijio bizitza bazter utziko.

Samariar emakumeak, "Jakob gure arbasoa baiño aundiago ote zaitugu?" [5] zion Jesus'i. Gaur-egun, gizonak, "oraingo aurrerapenak baiño aundiagoa ote zaitugu" diotela dirudi... "si sciress!.. A! an, eleiz-ixilleko bakardadearen dagon Ura eza gutuko bazendute!

Bertatik, "Nigan itxaropen ezazute, mundu guztia garaitu det-eta" esan digu. Itxaso-asarrea itz batean baretu zuana Bera da. Ta, orain Aldare-ixilletik arroi, diru-gose diranei, grana gazitoeekin burrukan diardutenei ta aragi-irritsen mendeko diranei: "Zarta kateak... ta zoazte pakean" esaten die.

Norbaitek pentsa dezake, Jaungoikoa, emen gure artean, ainbeste ezkutatu ez bazan, Bere aintza aundia ikusiko bagendu, alegia, beste batzuk izango ginakela; orduan bai Berreganduko lituzkela gizonak. Baina, ez; ez da orrela. Aintzak ez santututzen. Juduak Sinai mendi barrenean Jaungoikoa su-arteian ikusiaz jainkoizun-gurtzaille egin ziran. Apostoluak berriz, Tabor mendian Jesus'en aintza ikustean zentzungabekeriak esaten zituzten. "Aintzak izutu ta arrotu egiten du; ez ordea, santutu. Bekokian Jainko-argiaren dizdira zeukalako judu-erria etzan Moises'engana urrera-

tzen ausartzen. Orreia Jesus Eukaristian ezkutatua egonik, ikusiko bagenu baino maitagarriago da; Bere ixiltasunean itzegingo balu baino iztunago" (Eymard).

Gizonen zorion-egarria Jesus'ek bakarrik erabat ase dezake. Egungo gaitzak oro, Berak bakarrik erabat senda. Jesus au berriz, gure artean daukatu -Aldareko Sakramentuan- beti entzun eta laguntzeko prest. Denok Beregan jo dezagun, bada!

Uranga'tar Joan Joxe
Billaro'ko Sakramentinoa

-
- [1] "Obras Eucarísticas" del Bto. P.J.Eymard", 637 orrialdea.
 - [2] "Selecciones" 201 zenbakian.
 - [3] "Aitorkizunak" X-Iar. III-4, 245 or.
 - [4] "Kempis" I-Idaz. XX,6
 - [5] Yon IV, 10 ta 12



IBSEN



Autsak arrotu naiean nator, irakurle. Nik uste Noruega'ko antzerkigille gailien, jator au oso aaztua daukagula, auspean datzala gure artean. Bidezko ezik onuragarri deritzait bada, apurtxo bat bederen, gizon onetzaz iardutzea, aski merezi baidu. Munduaren zabalean bakan, oso urri izango dira antzerkian bere mailla jo dutenak. Erabateko naasketak sortu zitun... Egungo antzerkiari darion modernismo gordin ori bizi-bizi dakusgu beragan; bere aita da-ta.

Zorrotz, giar, gatzduna bere lan guztia. Egoskaitza? Ez nuke onenbeste esango. Arrotz, "raro" xamar... ori bai. Baina ez da arritzeko; ez aaztu guk gerkera ta lateran edan dugula, zurrupatu kultur-muiña. Igualekoxe alde... Bee aldeko ok beti gera biguin, beroago, emeagoak edo...Ia-ia sentimentu utsak. Ibsen, berriz, saioi odolekoa dugu, otzagoa, gizonagoa esango nuke. Gure aldean oso aldrebesa, beste ezpalekoa. Goitarrek (hiperbóreos) lurralde aietako jela-arkaitzen zakarra, otza dute. Benatsuak, ori bai. Ixillik sufritzen ikasiak. Irripartxo bat garesti xamar galtzen dutenak. Guk, bada, emakumearen sentimentua, "zera" xamur ori; aiek gizonaren indar, sendotasuna. Jakiña, gizonaren barneko gora-bera oiek ezin ditezke neurri ixtu, matematikuetan moldatu. Elastiku, biurri dira oso. Orregatik, ba-dira tartetxoak bi aldeetan. John Keats'en itz saioiei D'Annunzio'ren latera goxo-sasikoari baino kutsu helendarrago bat darie. Ibsen ez, Ibsen, jaiotzez eta izatez,

sajoi porrokatu dugu, saioi ta gizon. Bere odolaren jabe.

Sartu gaitze Iainkogabeko gizon baten bizitz urduri-naasian. Erruki, konprensiio pixka bat eskatuko nizuke gure Ibsen aundi, baiña giza-joarentzat.

B I Z I T Z A

Estrina bere bizitza gaingiroki lardas-
katuko dut. Ibsen'en bizitza, Byron'enaren antzo,
ozpiñaren garraztasun berdeaz estalia dakusgu.
Ba-du arantzik eta odolik... Barne erroetaraino
aztertzen badugu, an edirenen dugu bere burruka
ta ustelaren azi beltz-beltza.

1826'an jaio. Umetandik arroxka izan,
beartasanak eraginda, aundikeri-ames urdiñak kea-
ren beltz biurtu. Errixka batean botika-mutil du-
zu. Emen ezin etsi, periodikuetan lantxo batzuk
ezartzen asi da. Urrena, komiku aldra baten buru,
erriz-erri dabil. Gizagajoa emen ere ezin zan la-
gun artean konpondu. Orain antzerkiari lotuko zaio.
Txalo beroenak uste dituanean txistu zorrotzak en-
tzun bear! Au da, au, karrerik ezin egin inun!

Bertakoek etzuen onartzen da, aberritik
iges, arrotz aldera doa. Bere aberria, Rubén Da-
rio'k "Los raros"en dion bezela, bere profetari
eskobadak eman zizkion andre enas, koipetsu, zor-
ritsu baiño etzan. Segur aski gure gizonak etzuan
malgo gizenik botako... Dinamarka ibilli du. Ber-
lin, Erroma ezagun zaizkio. Europa osoan Ibsen oler-
kariaren izena Dinamarka'ko Jorge Brandes'enaren
urrena dator. Alare olerkiak ez du asetzen. Ez,
beste zerbait ames du, ames aundia: gizartean apos-
tolutza eginik, mundu gorro au sustraitik aldatu.
Noruega'ko jela-mendietako Tolstoi berri biurtu
zaigu. Baiña arek bezela Biblia irakurriarren, ez
da ageri bere antzer-notiñetan, errusitarrarengan
bezala, Berri-On argi xintarik ere. "Je ne lis
que la Bible: lecture forte, substantielle..."
esango digu berak idatziriko eskutitz batean. Er-
romatik ari dala -arrigarri benetan!- antziñako
Erromak ezin Aita Santuen Erromak ere ba-du izku-
turen bat bere barruarentzat: "Pedro donearen

eleizak, dio, alako itzal, bildur bat zirraratu zidan". Dana dala, esan dut bere lan guztietan ez dāla ageri lainko arrastorik ere.

Zartzaroan, erramu ostoak ere lurrera datoz noizbait, bere ospea beeruntz asi zanean, orduan ikusi zuan bere itz ederren utsa, utsa ta utsa... Mundua zeru biurtu naia... Baiña zein da bat dānen kontra?

"Ich frage meise; antworten ist mein Amt nicht": nik askotan galdetzen dut; erantzutea ez da nere arazoa... Au dio Ibsen'ek Rosmer'en aoz. Ba-du mamia itz edo esate labur onetxek. Zortzi itz oietan emango nuke nik egillearen argazki garbi, egiazkoa.

I Z A K E R A

Sekula etzan bere lan-gai billa ibilli. Bere barnean zetzan naiko ixtorio, naiko zer eman. Burruka, sua, griña pranko... Sutara bota sugea baino biurri, artegagoa zan bere barrua. Ekaitz latz, larria irakiten zeramakiana.

Katilina, Hjoerdis, Hedda Gabler, Elena ta bere Oswald, Peer Gynt eta Juliano, Falk eta Eyolf ttipia, Nora, Brand eta Stockmann, ots, bere protagonisten andana oso-osea bere ezur da aragi bizi dituzu. Bere irudimen iorian kokaturik zeuden lurrezko notinak, arnas beroaz bizituak. Au ez da nik esaten dutalako, berak agertu digulako baizik.

Gogora dezadan dramalari ikaragarriak berak eginiko aitortza bat. "Brand" drama eder au konpontzen ari zan bitartean, lan-mai gainean, kristalezko ontziño batean, arrabio bat auki omen zuan. Gaixotzen ari zala konturatzen zanean arnari ustel bat urbiltzen zion. Arrabioak, aserre bizian, gaixoaldian pilloturiko pozoin guzia aurrean zeukanari sartzen zion. Egiteko au bukatu ondoren, berriz ere bizi, osasuntsu kristalezko ontziñoan... len bezela. "Orixe bera gertatzen zaigu guri, olerkari oeri", zesan gordinki Ibsen'ek. Tamala gero benetan!

Asko luza ninteke gai ernegarri ontan,

oso aberatsa baita Ibsen'en iturria. Baiña, esana dutanez, bere lan batzuk ikusiaz, bera ikusia daukagu.

E R E D U A K

Ibsen badugu ere ideia-antzerkiaren aita, ez litzake bidezko bere lanak bizitz onen egi ta errealitatea ez duala dizdiratzen esatea. Bere presun guziek bizitza dan bezela dagite, barrukoi-agoa, axalekoa baiño. Ze axol bere antzerkiaren nasmus-ariak baitipat barrukoi, ideiazkoak badira? Onek apika atsegingarriago, bizidunago egiten du presun bakoitzaren gertakari bat. Anima, gogo arro, biurriko gizon-emakumeak beti. Beuren ideien argira gizartea naasten duten gezur-salerosketak ikusiaz, oen aurka altxatzen dira ausarki. Beuren ideiak garbi gorde nai dituzte, ez dute porrot egin nai, baiña azkenean burua makurtu bear. Jakiña, buru-makurtze ontan ez dugu apaltasun izpirik ikusiko; bai zera... Lotsaren gorria danen aurrean ezin eramanik, eriotz billa doazi geienetan.

Gizarteko gezurren kontrako asaldatze onek lotzen ditu bere eredu-notiñak oro. Denak sendi batekoak dirudite. Gizon ikasiak, burgesak; emakume ameslariak... Denak oso goruntz so dagi tenak, barruko kixkalgarrri duten egi-egarri ori gizarte gezurri onengandik urrun; oso urrun ase nai dutenak. Presun auen ao, itz apostoladutza, esan nai guzia Egilleak bere orde z emandakoa da. Atzo Falk olerkaria zan beti ezkontzan, beti derrior bukatzen dan maitasun burgesaz parre zegiana. Gaur Stockmann osagillea, "erriaren arerioa" bereak diru-naikeriz iturri pozoitu batetzaz baliatu nai diranean, egite galgarri au galeraztearren, bere galbideari ezaxolki lotzen zaiona. Biar Rosmer, Artzai protestantea, bere "eginbear, ideia berriak" aurrera eramatearren, erlijio ta sendiarekin betiko autsiko duana. Asko ta asko onela, geroago ikusiko ditugunak. Danak barru-indar, kemen berdiñekoak; danak dute "bere" egin bearraren fede argia. Itza aqsart, sarrastatzaille, gordin darabiltenak, egillea bera erbesteratu zuten burruka ta eztabai daen oiartzun antzo...

Gizon oen ondoren beste emakume-andana

arrigarri, berezi bat dakusgu. Eme irudimen argikoak, metafisikaz moskor, euren gogai-suaren erregai, ondakin errukarriak. Maizenik koskatik kanpokoak dira, nerbio zartatu, galduak; zoraturak, anima naastu, aldrebesakoak. Arpegiaren zurbillean, begi zulo sakonen illunean ageri zaie absolutuaren egarri dan barne bizi urduri ori. Bere eskuetan bizitzaren izkutua burnizko kutxatxo bat dute. Ezin ordea, ideki. Indarra, alegiñak... Dena alperrik. Beatz uxterrak odolean gorri, arpegiak ezinaren izerdi zuria... Izkutua...

Emakume oen adimen-zabarkeriaren exenplutzaz Hedda Gabbler ekarriko dut. Emakume galdu, erage, zain eria bera. Gaztaroko maitasun jolas lizunetan neskustasun xuria bestua dizu. Tesman gizon paketsuarekin ezkontzan lotuta, bizitz alai goxo daramala dasaiguke, ala dirudi. Baiña ara, berriz, bere olde, instintu gaiztoa azkatu... Ez du legearen katerik nai, lotzeke, nai duan bezela bizi baiño. Atsegin-gose amorratuak borbor dirakio sabel-zorroan. Itsas bare, plaunean ekaitz beltza lertu oi dan eran. Baiña ez ditu nolanaiko atsegiñak nai. Arrunt eta xeati leporaiño egiñik dago. Onatx bere amets guria: "Edertasunaren ditzira dan zerbait aundi egiteko" gizon baten naimen, borondatea, bere eskuetan izan.

Anartean amorru bildurgarri batek artu dio erabat barrua. Thea bere lagun maiteen danaren maitasun garbia susmoz eta tukuz lardaskatzea etzaio ba otu. Otu ezik egin ere bai. Bultzatu du berriro Lovborg, Thea'ren senarra, maltzurki zirikatuz, lenagoko bide okerrera. Erretzen dio lagun berriari galdua zuen idazlan baliotsu bat. Lovborg, zorabearrean, billa ta billa dabil etsi ezinean. Heddak orduan, onen-onena bizlari azkena ematea duala esanez, patxadan arma eraillea uzten dio eskuetan. Odol otza gero... Lovborg'ek, ume batek bezelaxe bere esana beteaz, begi biak maitearengan ezarririk, tiro lotsagarri bat josten dio bere sabelpearri. Ziplo lurean datza. Urre-ratzen zaio Hedda ta auxe besterik ez dio esanen: "Au tamala...! Lotsagarrikeria ta itsuskeria jausi dira, birao zikin antzo, nere esku nazkagarriek irutu duten gauza guztien gainera!"


La gaurtik Hedda'ren bizitzak ez du izate arrazoirik. Berak ere galdutzat jotzen du. Parre algara bat entzuten da nazkagarri, ero batena bailitz... Pianoan jotako inpernuko "vals" baten soinu ikaragarriak eta... bere bizitz beltza etengo duan danbatako legorra... Bereak egin du.

Emakume oentzat bizitza sukarra da; ol-
dozmena, zigor. Betiko bizimodu eresbatunak nazka ematen die. Orregatik, bere gogaien ego arinetan an goian bizi dira, ames-errian, gizartearengandik urrun. Bizi edo ala nai beintzat. Besterik ezin dutenean, bekaizkeriz bederen, jarraitzen die euren ames zatiñoa betea ikusten dutenei. "Zoazi, dio Marta'k Dina'ri "Gizartearen sostengarriak"-ean, zoazi zorionak zaramazkian tokira, andereino maite, itsas zabalaren gaindik. Zenbat aldiz ez dut nik amestu itsas xoragarri ori... Zein ederki egon bear dan an... Zerua zabalago, odeiak gorago, bularrak arnas garbi, ezeago,..Agur!"

Ikusi ditugu borobillean Ibsen'en eredu-tankerak. Bai gizon, bai emakume. Urrengoan eredu oetan zer dakusgun emango dut. Baitipait askatasuna, indar-kemena, maitasuna, izkutua.

Olaberria'tar Ildefontxo, oim.

- Erri-Berri'koa-



EUROPA'REN BATASUNA

Erriarteko alkartasunaz, obetogo esan, beren arteko batasunaz sarritan itzegin oi da. An-emen eleiz-agintari, politiku aundiki eta jaun-
txoak beren itzaldietan eta solasaldietan, noiz-
beinka egintzetan ere bai, asmo ori gogotsu ta
benetan adierazi digute. Europa bat egiten saiatu
bear dugula errien pakea ta zoriona sortu dedin.
Jakina, ortarako egia ta zuzentasuna oiñarri beze-
la jarri bear ditugu; bestela, ez dago pakerik,
ez zorionik. Pake ori lortzearren gizonaren esku-
bideak azpiratzen badira, axaleko pakea sortu dite-
ke, baiña benazko ta egiazko pakerik ez dut uste.
Barne-muina gorrotoz eta eziñikusiz jota egongo
litzake. Orixe gertatzen da, askok ez uste arren,
guztien eredu bezela azaldu nai duten zenbait er-
rietan. Begiak iriki ta ikusi besterik ez dago.
Egia ta zuzentasuna belauniko; gezurra ta azpik-
ria zutik. Aspalditxo ontan zoriontsu bizi gaituk
beiñipein, esaten dute. Bitartean ortxe dago lagur
urkoa, langille, nekazari, dana dala, iñoren lagun-
tzarik gabe. Beren eskubideak ez dituzte ezagutu
nai. Lenik eman bezalote bakoitzari berea ta ondo-
ren pakea ta zoriona etorriko zeizkigu. Ortik asl

bear dugu.

Europa batze kontua ez da oraingoa. Azken aldiko gertakizunak dirala-ta, oraingo asmoa bezela artzen badugu ere. Mundu guziko bigarren guda aurretik, Briand ministro prantsesari orrelako zerbait bururatu zitzaion. Beste batzuen aurrean azaldu zun bere asmoa. Baiña garai txarrak ziran aiek. Dana bertan gelditu zan. Nunbait etzuan erein bere azia lur onean.

Erdi-arora joan gaitezen. Orduan Aita Santuak izan ziran Europa batu naiean ibilli ziranak. Kristautasuna sendotzeko eta indartzeko asmotan nunbait. Ikusten danez, alperrikakoak izan ziran aien buru-austeak.

Eta azken ogei urte auetan, or ari zaizkigu ozka ta deika. Ba-dira gizon jakitun eta politiku zintzoak saiatu diranak. Aipatu ditzagun batzuk. De Gasperi eta bere alderdi edo partidua Italia'n; Prantzian Schumann eta Bidault eta beren alderdia eta Adenauer Alemani'n. Orobat esan dezakegu demokraziz gobernatzan diran erriezaz. Arlo ontan al dana egiteko beti prest daude. Auen borondate ona txalogarria da benetan.

BATASUNAREN ARRAZOIAK

Europa militarki bat eta guztiz indartsua ez bada Errusia eta Ipar-Amerika'n atzaparretan erortzeko arriskuan dago. Beraz erri guztien artean guda mutil on ta arma asko dezaketenak euki bear.

Bigarren arrazoa, ekonomiarena duzu. Len Europa, batez ere joandako gizaldiaren azken aldera, erririk indartsuena eta aberatsena izan zan dudik gabe. Baiña lenengo guda bildurgarri ura ezker, pixkana-pixkana beraka etorri da. Orain Estados Unidos da geiena dezakena. Ez da Europa bezain aberatsa. Onak Afrika'ko lurraldeetatik asko atera dezake. Baiña Ipar Amerika'k beste formakera edo estructures dauka, askoz obeagoa. Salerosketa aundiagoa euki dezake beren estaduen artean. Asko sortzen du eta sortzen dana saldu egingen du. Egin eta saldu; ortan ez du berdiñik.

Eta ortantxe dago bere aberastasunaren iturria. Emen Europa'n sal-erosketa aundirik ezin euki; erabat mugaz josota baidago. Erri batetik bestera pasatzeko papel pilloa bete bear da; nai bezela sal-erosteko eskubiderik, askatasunik, ematen ez dutelako.

Ba-da beste arrazoi bat. Gaur-egunean gizadiak edozeini ateak irikitzen dizkio. Alkar-artuz alkar lagundu bear omen dugu. Erri txikiak beren problema batzuk aurrera eramateko, nai ta nai-ez beste batzuegana jo bear. Orregatik auxe nai da. Guzien problemak erabaki eta zaintzeko Estatu asko dezaken bat eratu. Batez ere iru problema auek: ekonomia, "defensa militar" esaten dana eta erri-arteko artu-emanak. Baina ondo gogoan artu onako au: izkuntzak, arrazak, kulturak, oiturak, erri bakoitzeko legeak eta abar osorik ikutu gabe utzi bear dirala. AZKENENGO, Europaren kultura. Kristau kutsua daraman kultura eder au, oso eta garbi beti iraun dezan, erri indartsu baten laguntzaren bearrean arkitzen da.

Itxurazko arrazoiak izan arren, Europa' ren batasunari oztopo aundiak jartzen zaizkio aurrean. Ezaguna zaigu, noski, Europa' ren lengoa. Edozein uskerigatik guda gogorak eta odol-ixurtze izugarriak gertatzen ziran. Erri-arteko asarrea, burruka ta ezin ikusia, orixe izan da bere kondaira. Urteetan zear bere burua alper-alperrik galdu du. Oraindik ere ez da izkutatu anai arteko gorroto ori. Errautsaren azpian gordeta dagon su-txingarra; sugarretan jartzeko, gutxi bear izaten da.

Gauzak orrela daudela, ezer lortu al ditteke? Baietz uste dut. Europa' ren gaurko egoera negargarriak ori eskatzen baidu. Eta gainera orixe da askoren naia; bizimodu obeago baten naiak bultzatuta, noski. Batasunaren bearra guztion kaskotan sortu dedilla. Guztion onerako izango baida. Gizona gizartean bizitzeko sortua dan ezkerro, alkar-lagunduz, bat egiñik bizi bear du.

Ba-da beste buruauste bat ere. Erri aberatsak beren aberastasuna beraka joango ote dan bildur dira. Bere ondasunak erri arlotegoen artean zati banatu bearko baidituzte.

Orain arte ezer egin al da? Zorionez zerbait lortu da. Ikusi dezagun:

NATO edo OTAN (erderaz: Organización del Tratado del Atlántico del Norte). Badaezpada ere militarri indartsu egon bear da. Ortarako batu ziran nazio auk: Canada, Iparamerika, eta Europako erri guztiak; Austria, Espaini, Suezia, Suiza ta Yugoelabia kenduta.

OECE (erderaz: Organización de Cooperación Económica). Elkartasun onen elburua ekonomian, diru-kontuan, elkar-laguntzea duzu.

CECA (erderaz: Comunidad Europea del Carbón y el Acero). Schumann buru argiak sortu zuan asmo au. Sei nazioek osatzen dute: Prantzia, Alemania, Italia, Belgika, Holanda, ta Luxenburgo. Ikatza ta altzairua nai bezela sal-erosteko, nazio auk ateak irikita dauzkate. Ondore onak izan zitu-tuala-ta, "Mercado Común" dalako ori asmatu zuten. Elkartasun au eratzea pausorik aundienetako bat ematea zan.

EURATOM. Atomo indarra pake-bideetan no-la erabilli? Orixe da elkartze onen eginbearrik nagusiena. Azkenik, kultura arloan ere ba-da elkar-go kotsolagarri bat. Ikusten dugunez, auk, geient-suenak beinipein, materiari begiratuta sortuak dituzu. Espiritu alderdia ez da baztertu bear; bera izango baita benetako batasunaren lokarririk sendoena. Dana dala, egindakoak asko pozten gaituz-te. Denborarekin etorriko al da beste gainentze-koa. Ala uste dugu.


Eleiz Amak, berriz, zer esaten digu? Anai arteko gorrotoak izkutatzea ta errien arteko bil-durak kentzea; orixe nai du Eliz Amak. Ortara zuzentzen diran alegin guztiak gogo onez artzen ditu. Gizarte maillako asarroak baretu ditezela ta erri arteko segurantzi ta pakea sortu dedilla. Europak asko irabaziko luke batzearekin. Amaika problema errexago erabakiko lituzke. Batez ere e-konomi kontuan.

Bestalde, Europa kristautasunaren erdi-leku izan da beti. Ez bere burua Erroman dagola-ko. Berak, kristautasunaren gogo garbien eta on-doen gordetzen dualako baizik. Mixiotarako eta beste apostoladutzarako herak ematen dio laguntza-

rik aundiena. Beraz, begi onez ikusten du Eleiz Amak Europa'ren batasuna, kristautasuna indartsu ta sendo eusteko biderik onena dalako. Azkeneko Aita Santuak, langille porrokatuak izan dira batasunaren alde. Lantxo au bukatzeko gogoratu dezagun Pio XII'garrenak 1953'ko Eguarrietan esandakoa: "Zer edo zer egiteko garaia iritxi da noski. Politiku zintzo direnei orixe eskatzen diegu. Errien batasuna, beti kristaudiaren gogo bizia izan dala gogoratzea naiko izango baitzaie. Zergatik zalantzan egon? Bere elburua argi dago; errien bearra guztion aurrean dagon gertakizuna da. Norbaitek arriskuan jartzea dala esango du. Alaxen da. Baiñan bearrezkoa zaigu. Arrazoizkoa da gainera. Kontuz ibilli bear dala? Egia, baina jakintza ta politika arloan ainbeste lortu dan ezkerero, zertarako atzean gelditu? Aurrerapen ori, erremedioa jarri ta oztopoak gaintzeko ez ote da naiko? Bearrak, egitera bultzatzen gaituzte; arriskuan jartzea da seguruena. Bestela diotenak borondate onik ez dufe erakusten."

Saitza'tar Fernando

Billaro'ko Sakramentinoa



GEORG FRIEDRICH HÄNDEL

(1759 - 1959)

Urte-gaillur ontatik begiak itzuli orduko, musikazale-edo geranoi izen bat argitzen zaigu: Händel. Urtea-zear nazio geientsuenak izen oni eskeini dizkioten omen-jaiak eraginda, gaur eta beti denon maixu iraungo digun gizon onen bizitza-zear axaleko begiradatxo bat bederen botatze-ra ausar gaitezen, irakurle lagun, zu ta biok.

Sajonia'ko Halle'n jaio zitzaigun, 1685' garrenean. Etxekoek beartuta txikitan asi zituen lege-ikasketak alde batera baztertuz, musikarako joerari toki egin, eta bertantxe murgildu zan. Karrera oni eusteko dirua nundik? Len barbero xea zuen aita, ziruji-lanetan ere esku trebeko zala-ta, aundiki artera jaso zuen ogibidea: orra guzia.

Amazazpi urte urratzean, lau ixtumentu jotzen ba-zekien, Zachow'i eskerrak, eta Halle'ko organista egin zuten. Urtebete barru Hamburg'era pasa zan, eta lenengo operak argitaratu (Almira, Nero...). Arrera ona. Emezortzi urteko gure mutillaren izena Alemani osoan zabaldu zaigu, dagonekoz.

Ixillean iru urte ixuri ondoren, ikasketak bein eta betiko osotuko dizkion jiran Itali'ra, eta Itali'an Erroma'ra, jeixter zaigu: uri

artan baizeuden bilduta nazio guziko musikurik izen aundikoenak. Bertan ezagutu eta lagun biurtu zitun Alessandro ta Domenico Scarlatti. Azkenengo onekin, -aurka, noski- Erroma'k inoiz artuko etzuen norgeiagoka famatu bat jokatu zuen Händel gazteak. Azkenean, saria erdi-banatu egin zieten. Gure organuan txapeldun; klabezinean, berriz, Scarlatti.

Itali'an eman urteak muga sakon eta agiria egin zioten Alemani'tik zekarren estiloari, ildoari. Orduan utzi zizkigun "La Resurrezione" edo "Trionfo del tempo e del disinganno" azal-azaletia aztertze utsa naiko, Erroma'k eman zion joskeraren berezia nabaritzeko. Erroma ta Napoli'n ausnartu zituen garai artan pare gabeko Itali-oratorioa eta Stradivarius'ek biolinistei eskeini zien errez-tasun eta aberastasun berriek urratzen zituzten bide nabal-argiak. Erroma'ko musika-arnasa Händel'ek baino gizonkiago mamitu duen ereslaririk ez digu inoiz Alemani'ak sortu.

Ta goazen aurrera. Azken bizi zituen berrogei ta amar urteak Inghlaterra'n eman zizkigun. Ara iritxi orduko, 1710'garrenean, Hannover'en direttore egin zuten, uri ontako bertako Elektoreak ala naita. Jaun au (Hannover'ko Jorge, alegia) erregetzara jaso zutenean, Händel London'era aldatu zan, eta Aaron Hill'en eskari larriari erantzunaz, bi aste barru "Rinaldo" asi ta bukatu zizgun. Egia diozu, irakurle, emen eta an, lendik, eginda zeuzkan zatitxoak ere oretuz, katigatuz, osotu zuela opera ori; baina, batasunari eta estiloaren jatorrari so, ezin ukatu zuzen uste ta itxaro zitekeana baino oso ta ederrago irten ziztaionik.

Orduan asi ziran Händel'en egun beltzak: Purcell illobira jetxi zitzaienetik, Inghlaterra osoko musika usteltzen ari zan Itali'ko sasi-musiku talde laidogarriarekin muturka jardun bear, egiaren eta ederraren alde zerbait izateko. Txalo eroen gaillurretik leitze sakonera, gora ta beera, beera ta gora, musika-kultura ta musika beraren joskera garbitu eta jasotzearren, Gluck'ek Paris'en eramanak eta bost jasan bear izan zituen Händel'ek London'en. Lagunak urri, ukabilla nunai...

Arerioz inguraturiko bizigiro ontan, arna-

sa eziñekoa zuen, beraz. Azal gogorreko gizona, ordea, ta diru faltak ondoa joarazi arte etzuen etsiko; eta lagun batzueri eskerrak, berriro patrika epeldu bezin azkar, itxu-itxuan buruauste guziak irentsitzeko prest gertatzen. Bearra! Bearra!: ona emen gorri-gorri, gizon aundi guzien gaitz santua!

Lan eta burruka oien ondorio, beste gaitz bat ere gailendu zitzaion, eta illobi ertzera labaindu; baiña, arerioen tamala!, gorputzak sendo erantzun, eta Aquisgran'en indarberritu bezin laister, London'eko lanetara murgildu zan, egunean baiño egunean odolgiro ta arreta bizkorragoz.

Inoiz ez aina bero zebillenean, ordea, klink! azken-txanponak, eta kito: porrot egin zutela. Garai artan garaille-txapela zeramakiten sasi-musikuen merkekeria bere lanekin neurtuz arbuigarri azaltzearren, Händel'ek ere geienbat operak idazten zituen. Eta ondo ederrak antolatu ere. Bai noski! Baiña Händel bakarra zan, eta italiarrak asko: danen artean ito egiten! Onegatik, lagunik gabe gelditu zan.

Azkenean, besteen laguntzarik gabe, aurreratuz-aurreratuz, orkesta berri bat sortzeko aina bildu zuen, alere. Eta... alperrik!: betiko zurrunbilloan galdu zan. 1740.

Bide ura itxita zeukan, beraz. Operak alde batera utzi, baiña... ez!: beti artega, beti urduri, "zer-edo-zertan jarraitu bear beinipein", eta oratorioak eratzera aldatu zitzaizun, buru-belarri. "Zer-edo-zertan jardun"? Ona nundik nundik erbia irten zitzaion: oratorio auek eman zioten Händel'i gaur eta betiko erruz irabazi zuen izen eta itzala. Oratorio geienak (25 idatzi zizkigun), 1758 inguruan aurkeztu zizkioten, baiña askoz lenago ere, arerio guziak ebain-ebain ankapen artu zituen, eta fama murriztuta ikustean, eta geienak, okerrenak, igesi alde egin zuten Inglaterra'tik, lotsak janda.

Garai ontako lanik aipatuena -eta ala me-rezi- "Messiah" dugu. Oratorio zoragarri au 24 egunean osatu zigun. "Messiah" lendabiziko aldiz jotzean, azken-aldera korua "Aleluya" kantatzen asi zanean, entzule guziak -baita erregea bera

ere, aintxe baizegon- zutik eta ia arnasik ere gabe entzun zuten, eta bukatzean, ia erotu arte txalotu Händel zaarra. Arrezkero datorkigu Händel'en "Aleluya" zutik entzuteko oitura. Händel'i urte mikatzak aitu zitzaizkion, eta bere izena In- glaterra'ren biotzean sakonki errotuta gelditu zan. Oraindiko bizi zala, Vauxhall'en Roubillac'ek mol- daturiko irudi altsua jaso zioten. 1751'garrenean, begi-lauso bat medio, itxututa gelditu zan. Begi aien argia itzali osteko zortzi urteetan, egundo- ko fama irabazi zuen, baina... lan berririk ezin idatzi!


1759'garrenean jorraillak 14, il zan. Erio- tzaren berri izatean, orra London, orra inglaterra osoa beltzez jantzita.

Händel'en musikak arnas berezia du oso: kultura-sailla guzitan zirakien barrokismuak Bach'en bidez orkestari ematen ari zitzaion fuga-lega- mia, gure onek koruari sartu zion. Aitatu ere bea- rrik ez dugu, bada, Cassimiri'ren molde estuetatik gainezka arrotzean, lanak artuko zizkioten zabal- tasun eta aberastasuna. Gaiñera, Itali'ko opera kaxkarinak -orretxen aurka atzaparrak odoldu arren- eman zion beretik, eta arintasuna kantu guzietan ageri zaio; ori bai: merke-kutsuen oiartzunik ere gabe. Ontan erre baitzituen 50 urteko saio ta ne- keak. Ez da arritzekoa.

Goian adierazi bezela, Händel'en izena gi- zaldiak-zear bizi-bizi piztuta iraunarazi diguna oratorio-sailla dugu. Emen agertu zitzaigun mutil: musiku osoa, trebea, aparta inoiz apartekorik izan badugu. Orain aundi, sakon, baretasunik ixillenez gantzutua; pizkor, odolbero, indartsu... ta dana batasunik gardenean esituta: Händel'en lanak orri- rik ikasgarrienetako bat idatzi zion musika-isto- riari.

Berreun urte osterantzekuoi ere irixten zaigu, zorionez, dirdai oien ederra!

Laskibar'tar Yon, ofm.
-Arantzazu'koa-



ELKARRIZKETA

MITXELENA-ELIZALTE JAUNARI BIOTZEEZ-BIOTZ

= = = =

EUSKERA'ren azken zenbakia, 1959'ko ale bakarria alegia, irakurri berririk nauzu eta bere orrialde ernegarri ta mamitsuak irauliz, xurgatu ahal izan ditut Bilbo'ko euskal-batzarre gogoangarrarian egindako itzaldiak eta erabillitako auzigaiak.

Lerro aukeratuak, zuk beste euskaltzale batzuekin izandako eztabaida bati buruz dijoaz. Eztabaida artan, nire iritzi berezia izan arren, enintzen mintzatu, arras lotsati ta baidurtia bainaz entzulejendearen aintzinean mintzatzeko eta nire buruaren jabetasuna eta esanguraren aria ziara galtzen dut; orretxegatik jende artean beti ixillik ikusiko nauzute, itzegiteko amorrazten nagoelarik ene baitan, eta orretxegatik naiz lumaz itz eginzale, luma baitut ene adiskide leiala barruan itotzear dauzkaten sentipen gordeok kalera iraultzeko. Beraz, zuek an aboz erabillitako auzi-mauzia, orain "Euskera"ren orrialdeetan argitaraturik ikusirik, odola berriz ere apurtxu bat berotu egin zait, eta auzi orri buruz ere iritzia agertzeko luma (ene adiskide on ori) eskuetan artzea erabaki dut.

Auzigai au DONE itza dugu. Itz onek makinatxo bat berotu ta dantzatu ditu, batzuek alde, besteak kontra. Zu kontrakoa zaitugu, erabat kontrakoa, alajaina!, zuk itz oni bota zenion epaia bezain gogorrik inoiz gutxitan aditu baitut eta nire iritziz (enaiz ex cathedra mintza) etzaude izpidean orrelako epaia botatzeko.

Auxe diñozu zuk zure epai-itzetan: "DONE itzak ez du ezer esan nai, ezpaita euskeraz sekula DONE itzik izan, azkenean norbaitek asmatu zuen arte". Itz oek, ordea, ba-dirudite benetan "ex cathedra" botiak daudena. Ala're, ni ezin zure iritziarekin bat etorri, eta nire ustez egia dena azaltzen saiatuko naiz.

Aitortzen dizut eta zinez aitortzen gaiñera, gaurko euskal-izkuntzalaririk goituena, gallenena (Errenteri-Oiartzun aldean esan oi duzutenez) ta

jakitunena zu zaitugula eta euskeraren itxaropenik aundienetako bat zu zerala noski baiño noskiago; are geiago, zure mirezle aundienetako bat, aundiena ezpa'naiz, ni nauzula. Maixutzat aitortzen zaitut eta euskeraz idazteko egiazko jo-muga edo orientazinoa arkitzen zerorrek lagundu didazu. Alabaiña, egingo nuke arestiko itz oiek etzituela jaurti Mitxelena izkuntzalari jakitunak, jakintzagizon onen azpian dagoen gizonaren biotz-naitazunak baizik.

Goazen, bada, apurka-apurka auzi au aztertzen.

Zuk zerorrek aitortzen duzu DONE itza zillegi dela santu izenetan JAUN'ekin (edo laburtuz JON'ekin) alkaturik. Adibidez: Jaun done Martin edo Jon done Martin. Beraz, zure iritziari atxiki, DONE itzak euskeraz zerbait esan gura du, JAUN itzarekin alkaturik dijoanean beintzat, eta itz ori etzuen inortxok asmatu (euskaldunen artean esan gura dut, Erromatarren artean norbaitek asmatu bearra izango zuen, sortu baldi ba'zen) erriak latinetik artu baizik.

Aitortzen duzu ere, DONE itzak toki izenetan, JAUN orren laguntasunik gabe, soil-soilki, "santu" itzaren zentzuna daukala, esaterako Donostia'n, Donibane'n, Donazaharre'n... Beraz, bigarren aldiz zerorren esanaren aurka zoaz, DONE itzak soil-soilki erabillirik ere zerbait esan gura baitu, eta gure toki-izenetan ere eztu inork DONE itzik asmatu, gure aurrekoek beren erriak bataiatzeko latinetik artu baitzuten zuzen-zuzen.

DONE soil-soilki erabiltzea "euskaldun guziak izan duten usadioaren kontra joatea" dela diñozu. Untan etzaude izpide osoan ene ustez. Nik ez tut, zuk bezala, gure literatu zaharra oso-osorik irauli eta ezin esan dezaket DONE itza bakarki inork ba-darabilten ala ez. Eman dezagun egilledun liburu guziek JAUNDONE edo JONDONE (aipatzen ezpa' duzu ere Andere dona Maria onartzen duzula pentsatzen dut) itza darabiltela eta DONE inork ere ez. Orra ba; joera nagusi onen aurka iru xehetasun agertu nai dizkizut:

I.- Gure tokizenak [1] DONE itza soilki ba' daramate, agiri garbi-garbia dela erriak orrela erabiltzen zuela noizpait JAUN erantxi aurretik, bestela, gure erriak Jondonostia, Jondonibane ta abar izango bailirake.

II.- Ba-dela Juan Antonio Mogel'en testigu-tza bat [2], DONE soilki erabiltzen zenarena. "DONE"z zabalki mintzatuta gero, Eibartar seme argiak onela dio: "nuestros ancianos usaban más veces y les hemos oído repetir varias en la confesión general o el Confiteor, Virginia Done Mariari, Beatae Mariae, etc. Esto no lo dude Vmd". Zuk, ordea, Mitxelena jauna, esan zenizaiguke, Mogel'ek ejenplu bakar bat dakarrela eta ejenplu orretan ezte-la garbi ikusten DONE bakarrik ote dijoan ala ez. Alegia, jaundone bezala andere done ere ba-dagoe-la eta berdin izan zitekeala Birjiña done, ots, emen ere beste itz bati erantxita dijoala. Dagoneko itz askori erantxita ikusten ari gera DONE berez ezer ezte-la esateko, bañan jo dezagun ontan ere arrazoi duzula, ots, betinadik DONE beste itz bati erantxita joan dela. Ala're, nik bildurrik gabe esango nuke DONE bereizirik erabiltzeko oitura -batez ere erri-izenetan oinarriturik- ziaro bidezkoa eta legezkoa dela, DONE ezpaita atzizki bat berez zentzurik eztuena, bakar-bakarrik "santua"ren esanguera duena baizik. Jaundone eta Andere dona erabiltzea garai bateko oitura izan zen eta DONE soilki erabiltzea gurealdiko oitura eta lepo egingo nuke gurealdiko oitura au jaundone'ren aurrekoa ere ba-zela, toki izenak darakuskigutenez eta baita geroago aipatuko dituten esaera zahar batzuek ere. Beraz, au orrela izanik, gaurkoek oitura zaharrenari eutsi besterik eztiote egin eta berrizaleak jaundone sartu zutenak ziren. Oiturak, izkuntzetan eta edozertan aldagarriak dira eta gaurko oitura -eta arañeungoa, beraz- atzokoa bezain errespetagarria da. Nik ez tut esan gura onekin jaundone eta andera dona erabili bear ez lirakenik, pozarren ikusiko bainituzke zabaldua eta Aita Manzisidor'ek idatzitako "Santu Bizitzak" liburu ederra neuk idatzi izan baldin ba'nu, ez nituzke ipiñiko, noski, Makario deuna, Paulo deuna, Zirilo deuna, Andres deuna... (Aita Manzisidor

DONE'zale baiño DEUN zaleago dugu eta ain zuzen ere DEUN'ek eztauka DONE'ren tradiziño titulurik. Ala ta guziz ere erabilgarri derizkiot, Azkue'k diñogunez "deuntsu" itz errikoia baita Bizkai'ko zenbait erritan, "feliz", "bienaventurado" esangurarekin eta -tsu atzizkia kentzearekin ezta izkuntzaren kontrako pekatu larririk egiten, batzuek ala uste ba'dute ere. Beraz, au baiño kalte aundiagorik egiten eztiogun artean gure mintzairari ez ditzagun arropak urra!), onela baizik: Iondone Makario, Iondone Paulo, Iondone Zirilo, Iondone Andres... gure literatur tradiziñoari jarraiki. Baiñan, esan dezagun berriz ere, naiz DONE, naiz DEUN, naiz SANTU, IONDONE bezela ongi daude, eta denak dira euskera, euskera jatorra, latinaren emariz aberastutako euskera.

III.- Azkue zenak eta baita Lhande zenak ere beren iztegi bikainetan DONE itzean (ezpaidute lotsik DONE "santu" dela aitortzeko), izen au bereiz agertzen den adigarriak jartzen dituzte. Lenengoak "Refranes y Sentencias"etik ateratzen ditu bi. Urte asko dira esaera auek irakurri ez ditutela, baiñan ene ustez Azkue'k jartzen dituan adigarriak baiño geiago ere ba-dira. Orain,ordea,eztaukat astirik denak astertzen asteko eta Azkue'renak aipatuko ditugu soilki, gaur aditzera eman gura duguna erakusteko aski delakoan. Gure Azkue berdingabeak onela agertzen digu DONE itza: DONE (c). Santo, saint. Hoy casi en desuso en el pueblo. Parece la voz latina "domne", contracción de "domine". "Doni-aneko euria garien galtzagarria, lluvia de San Juan causa de perdición del trigo." "Done Emeteri Zeledon, porru erei-aro on, por San Emeterio y Celedonio, buena sazón de sembrar puerros." RIEV aldizkarian argitaraturiko "Refranes y Sentencias de 1596" lanean 254-280 eta 330 zenbakiak daramazkite supita auek. Lan berean, 318'garrenak onela dio: "Done Bizen argia, guztientzat dakar ogia, San Vicente reluciente, para todos trae pan. Orra, Mitxelena jauna, gure erria nola mintzo zen, esaera zaharrok, zuk dakizunez, erriaren ezpainetatik jasoak baitira. Beraz, erri-izenetan ez-ezik, erri-mintzoan ere, soil-soilki erabillirik, DONE zerbait da, DONE gaztelerazko "san" edo "santo"

da eta au ukatzen digutenen aurrean ezin ginezke ixillik egon. Orra, orain, Lhande'k dakarzkienak: Doni Juane, St. Jean; Done Martine, Doni Martiri, St. Martin; Done-ebaki, Done Joane burut emana, la décollation de St. Jean-Baptiste; Done santuru, Toussaint; Done-berezi, chaire de St. Pierre (be-rezi, choix qu'il fit de Rome pour siege apostolique); Dona Andre Maria, sainte Marie, Dame Ste. Marie. Adigarri auetan enaiz ni mintzo, ezta Lhande ta Azkue ere, Euskalerrria mintzo zaigu belauenez-belaun eta gure aurrekoek utzi digutena ez gaude baztertzeotan orainaldian euskaltzale batzuek o-nartu nai ez duzutelako itz au.

Eta amaitzeko, lot gakizkion Zugasti apaizari egin zenion galderari, alegia, DONE, euskal-itza ote den. Zugasti'k ezetz erantzun zizun, berak jakingo du zergatik; nik, ordea, baietz dasaizut [3]. DONE ezta euskerazkoa izanen, itz guztiak euskal-jatorri garbitik nai dituztenen iritzian -eta bixi da, auek DONE-DEUN'en alde buru-belarri dabilz-kigu latiñetik ezatorrela aldarrikatuz (bejondai-ela!)-, baiñan, zuk eta nik eztugu orrela pentsatzen. Zuretzat eta niretzat, lege, errege, pake, pekatu, zeru, eliza, diru, premia, ta abar, BAI eta EZ bezain euskal-itzak dira. Erabat euskalunak, aitzeki gabeko euskal-itzak. Beraz, DONE ere aitzeki gabeko euskal-itza dugu, aipatutakoen senide-senide baitugu. Euskaltzaindiak erabaki zuen Bilbo'ko batzar ortan bertan itzak erabilkizunez eta usaric zirela euskal-itz eta ez jatorri garbitasunez. Beraz, zuek Bilbo'ko euskal-batzarrean emandako epaiaz DONE euskal-itz dugu, erabilkizunez, usarioz eta tradiziñoz, belauenez-belaun baidatorkigu gainerako eleiz-itzekin batean.

Auxen da guztia, Mitxelena, jauna. Gaizki ezanak barkatu eta ondo esanak, berriz, gogoan artu.

Yon Etxaidetarra

[1] Amar errik daramate beintzat DONE izena Euskalerrria'n, Ona: Donostia, Donibane-Lohitzun,

Donamaria, Donestebe, Donaisti, Donaphaleu, Donazaharre, Donestehiri, Donobane-Garazi eta Donamarthiri. Tokizenak eiruzka daude zazpi euskaerrietan. Eleizalde zenak RIEV'en argitaratutako tokizen lerroetan ikus ditezke sail ederra. Aralar mendi ederrean Igaratza'tik Zaldibi'ra goazela bada iturri bat "Doniturrieta" izena daramana. Seguru aski iturri onek santu baten tradizinoen bat izanen du, inork olako zerbait ba'leki, eskertuko nioke jakineraziko ba'lit.

[2] "Cartas y disertaciones de Don Juan Antonio Moguel sobre la lengua vascongada", Real Academia de la Historia'k argitaratutako "Memorial Histórico Español"en, 748'gn. Urrialdean.

[3] "Esan" deusen kezkarik gabe irabiatzen dut, zu iritzi berberakoa etzaitugula irudituarren. Sekula konjugatu ote den? Intzagarai Euskaltzaindi'koak, oker ezpa'naiz, Donostia'ko zaharrek irabiatzen zutela zion. Dena dela, Bidaso'z bestekoek "erran" beti konjugatu izan dute eta au gurearen senide-senidea dugu. Senidetasun onek ematen dit eskubide, niri beñepein, bildurrik gabe irabiatzeko, orain modan jarri den iritzi-estua euskeraren euskeraren bidez aberasteko -ez erderaren bidez aberasteko, ori nai bestean libre baita- iguin-garri baitzait.

Y A K I N ' i erantzuten.

IRITZI-BILLA. (Orri ialkiari erantzuna):

Atsegin al zaizu YAKIN? - Orain datorren bezala, ez osotara; baiñan etorkizunean ematen didan itzaropideari zai, BAI.

Irakurtzen al duzu? Zein atal eta zergatik? - Bai, iauna, atalik zailenak, eta gaiarengatik.

= = = =

SARRERA'ri erantzuna, (Euskaltzaindiari). - Ondi Jago Akademia'ri diozun begirune ori; baiñan ez

du ori eginkizun, adieraziko dizudanez. Munduko Akademi guziak atzerakoi dira -bear ere-. Ama bat, beure aurrari oinez erakusteko, atzetik ioan bear du.

Akademiari au dagokio beñenik: agortu ta dauden liburu zaarrak, zarrenez aurrera argitaratzea, ta idazle bakoitzaren itzak eta esaerak andik ateratzea, geroz-geroka erabateko Iztegia ta Gramatika egiteko. Artua zeukan il zan Akademiak, la défunte Academie, erabaki ori; bainan ordukoak eta oraingoak uts aundi berbera dute: DIRURIK EZA. Au da Akademia'ren eginkizunik beñena, Giza-batza danez.

Eta zer egin du bide ortan? -Esan dutenez, Ortografi bakarra gotor ipintea. Au ere erroz gorra irauli nai izan zion bigarren Akademi onek; baiña iendearen marru biziari autemanez, aukeran utzi zigun. Ori gertatuko zaio berriz ere, asi dan bezala iarraitzen ba'du. Beste lan bat ere egin zigun, Giza-batza danez: Iztegia. Non da? -Nik ez dakit. Azkue, Olabide ta Ormaetxea batzorde zirala, auek aurreratutako lana Batzarreetan Euskaltzaindi osoak aztertzen zula, bear dan bezela, jakina!, iruron gauza onak onartuz, beste batzuk aldatuz, eta baita ere kenduz, bukatua zeukan Iztegi ori, eta Irarkolarekin izketan asia zan, argitaratzeko. Zer gertatu da? -Matxinada etorri zan, eta...

Bainan Akademi-seme orien bakoiz-lanak dedu aundiagoa emanen diote beuren Amari. Azkue'ren eta Altube'ren Iztegi ta Gramatika-lanak alde batera dirala, zer nolako idazleak atera diran Giza-batza ortatik! Or ditugu Txomin Agirre, Azkue, Eguzkitza, Ibargutxi, Manterola... bizkaitarrak baizik ez aipatzeko. Orobat beste eskualdeetako Akademitar eta gainerako idazleak ere.

Oraingo gazteek ez dute bear aiña ezaguter lanketa bizkor ori. Sakabanaturik arkitzen da, liburuetara gabe, eta argitara gabe lurrak iretsi ditun lanak! Gazte ausartu batek au idatzi zidan Amerikera'ra: "Berrogeitamar urte auetan ez da ezer egin euskera iakintasun gaitan lantzeko". Beste gixagaixo batek ar! lagun egin zion. Nor asi zan gai zailiak arrotzen? - Ioannes Etcheber-

ry'k eta Harriet'ek utzi digute Gramatika, euskeraz egiña. Eleiz-literatura egin zuten aurreko geienak, eta Mistika'rik ez, Kardaberaz, olako mistikua etxean idukita. Au egiña dugu, eta diñotenez, gai zaillak errex ipiñiak omen daude, ta euskera errexean, Gutxi edo asko saiatu gera Metafisikan, Estetikan, Gramatikan, Aritmetikan, Geometrian, Fisikan eta Kimikan, gure lan asko argitara gabe galdu ba'dira ere. Aita Gabirel Jauregik argitara eman zigun Fisika, oso polita; Olabiderena galdu zan, damurik! Belgika Marneffe'ko Iesulagun gazteek bialdu zidaten Fisiologia ta Kimika, ongi politak alare; nik Iulio Urkixo zanari eskuetan ipiñi nitien. Matxinada etorri zan, eta...

Euskera zailla egiten genula? Ez YAKIN'ek bezain zzilla, iendea esaten asi dan bezela. Nik geienetan lenbizikoan aditzen mendun euskera ua; baiñan zenbait artikulu YAKIN'ekoak zenbait toki-gunetan iru aldiz ere irakurri bearra izaten dut, eta ez naiz seguru gelditzen buruz atzi ote dudan.

Gure bidetik zoazte nai ez ba'duzute ere, bide ortan pauso berdinak ematen ez ba'dituzute ere. Guri artzen diguzutena kendu ezkerro, zer gelditzen zaizue Axular'enetik eta olakoenik? Lenbizi artatik au egotzi zion baten baten YAKIN'i: Orixe'ren kutsu geiegi zeriola. Andima atera zan YAKIN'en alde. Nonai arkitzen ditugu itzak eta esaerak guk errian bilduta esaten asiak. "Au Aita Intzak ekarri zigun Euskaltzaindia Naparroatik (makiña bat itz, esaera eta aditzaren ioka-itz, flexiones verbales) bai, gizagaizoak! Olako asi zan itz au erabiltzen; beste olakok ekarri zigun itz au" eta abar, buruan pasatzen zaigu zuek irakurtean. Ez dugu makur aundirik zuekin; baizik ere, zuek etzeratela saiatzen gu aiña erdal-itz nabarmenak euskeraz ipinten.

Ni ez nau batere kezkatzen euskera idatzia ren etorkizunak. Or daukagu Bizkaian zutoin bizkorra, Aita Onaindia, beure bakoiz-lanekin eta besteri eragiten ditionakin. Gipuzkoan ere, iritxitxo batzuk gora-beera emen daukagu Luis Mitxelena, oraingo aldiko idazlerik oberena. Geroak au gure gizaldiaren ondorengorik iatorrena aitor-


tuko du.

Uste baiño bertanago gaude guziok ere elkarrengandik, eta luzaro gabe, ezkuak elkarri emateko moduan. Ni zerk kezkatzen nau? -Gurasoen zabarkeriz errian euskera gaulduko ote danak.

Segi aurrera, YAKIN'eko idazle gazteok. Drainarte "non passibus aequis" zoazte gurekin. Ez diñot arrokeriz. Urte asko gabe, gure pausoak berdinduko dituzute, ta areagoak emango euskerararen onerako. Ekin, autsi, urratu!

" O R I X E "

O. - Ahantzi gabe. Zuek ere, YAKIN, EGAN, KARMEI, OLERTI... itz berriak ateratzen asi zerate; batzuek politak, eta geldituko diranak. Ori da bide bakarra, Campion'ek ederki esan zuuna: "Gurre baratzeko landare utsarteak geuronetik bete, ahal dala; ostera, besterenetik artu".



E U S K E R A

Euskaltzaindiaren lan eta agiriak.IV. Bilabo,1959.

Mardul, jori ta erne dator oraingo ale au. Igazko (1959) Abenduan Bilbo'n Euskaltzaindiak antolatu zuen Biltzarrean irakurri ziran mintzaldi ta eztabaidak dakazki. Auezaz gaiñera ba-dira beste zenbait lan ere. Aipamen berezia merezi du Altube'tar Seber'enak. Praille, ta apaiz ta moja xumeek ta... , zoritxarrez, beste batzuek ere bai, ba-dugu errurik... Gu, bai,gu baikera euskera il-tzen ari diranetan erantzukizun astunenetakoa dutenak. Donestebe etzuten arrikatzailleak bakarrik il... Guk ere, zerutar tximista bearko ote dugu, ba, okerrak zuzentzeko? Ailedi igo euskal-aitona agurgarri ta jakintsu onen dei samindua bearreko litzaken tontorretaraiño.

Ba-da oraindik beste lan aipagarririk; baiña gaurkoz bi laburtu nai nizkizuke; Aita Villasante'rena ta Txillardegi jaunarena.

- - -

BIZITZATIK URBIL. Aita Villasante'rena dugu lan au. Zentzuduna auxe, zentzudunik bada. Gure literaturak zenbait bizigarri bear dituela dio, ta bizkortasun ori erriak bakarrik eman dezaiokela. Euskeraren jomuga au omen da: idazkerari dago-kion prestutasuna ta irakurleari zor zaion argitasuna anaitzea. Euskera illargitarrak irakurlea axatu egiten du, ta zoritxarrez euskal-liburuekin maizegi gertatu zaigu au. Erritik aldentutako elerti au zaletu bakan batzu engaiñatzeko apartekoa dugu. Ta Orixe'rena gogoratzen digu: "Geldixeago joango bagera ere, daramagun erria gurekin". Bestela, Altube jaunari erritar batek zion ura jaurtikiko digute euskaldunek: "Akademixako euskera ori guk ez dakigu..." Altube'k ere, baitetsiaz, ori bera dio: "Orixe da guri gertatzen ari zaiguna."

Orain gutxi, suezitar Naert izkuntzalaria-ri onoko au esan omen zion euskaltzale batek: "Eus-

keraz akeita deitzen diogu café'ari". Ta jakintsuak berekiko: "Ba, euskera izango da munduan diran izkuntzetan kafeari kafea esaten ez dion izkuntza bakarra" (!?).

Egungo zibilizazioak pentsakera berri bat ezarri dio munduari, eta era berri oekin batera, baita konzetu berriak ere. Pentsakera au ez da erri onena edo arena, guziona baiño, ta askotan onelako idea bakarrari itz orokor bat datorkio egokien. Zergatik ez artu guk ere?

Ba-da emen beste auzi bat ere. Euskera jatorra bear dugu, ta ortarako askok baserrira bultzatu nai gaituzte. Baiña gaurko zibilizazio-moldeetan ezin sar dezakegun mintzaira orrek kaletarren aurrerapen-mamia eman ote dezaiguke? Askotan kaletarrak gai batzuetan darabilkiten mintzaera ez ain garbi, baiña bizia, baztertu egiten dugu, ta ain zuzen ere oiek bear ditugu gure euskeraren bizkortasunerako. Garbizaleak ez luke eibartar arek pelotalekuan zion ura erabilliko, ez: "Fakultade astronomikoak zeuzkak orrek", ta ala ere "ezta garbizale mutillik jaio, esaldi ori bere indar ta giar orrekin esaten dakianik", orren ordez txepelkeriren bat izango luke.

Garbizaleak onelako zerbait egin bearrean ere arkitzen dira: itz bakarraren ordez itzul-inguru bat eman, alegia. Latifñez, adibidez, "café exprés" esateko ara baten batek asmatu diguna: "potatio arabica coram expressa". Gosari txiki bat egiteko lain lukainka ba-da emen. Ta au benetan pobretasuna da, askotan aldrebeskeriren bat edo esakune luzeren bat gora ta beera erabilli bearrean aurkitzen baita idazlea.

Baita Aita Villasante ez da noski mordoillozalea ere: "Erderaren bidez sartzen zaizkigun itzak artuaz ta asimilatuaz (bearreko diranean, jakina), ez dut uste euskerari kalte egiten zaionik... Bear lirakenak artu, baina gauden euskaldun".

BATASUNAREN BIDEA.

Txillardegi jaunarena da. Bai ao-gozagarri ta adimen-argitzaille auxe! Idazle zaarren alako bizitasun bat sumatzen da orrialde auetan; ba-dugu noski YAHINlariok zer jasorik oraindik gazte, baina umotua, dan Txillardegi'ren lumatik. Ez ote zenezaguke filosofi-liburutxoren bat edo eman... Betoz lenbaitlen, ba-duzu zer ta ederki emanik-eta.

Txillardegi'k gogor ekiten dio autatu gai-ari: "Alegia, "pakea" egin bear omen dugu gure artean, pakea bakarrik... urteak pasata ikusiko omen da zeñek zuen arrazoa". Ez da gure euskera lurpetuko duen pakearen zale. Gauzak bere ortan utzita ez dugu inoiz ezer iritxiko. "Zalaparta gorri bat ikusita, ta ura tajutu naiean, nork e-sango luke: "Utz, utz: zefiek duen arrazoa geroak esanen"? Inork ez. Gure artean, ordea, askok".

"Gure artean au gertatzen da: arriak erortzean, goruntz dijoazela esan dute batzuk, beste batzuk berriz ezkerretara egiten dutela, eta beste zenbaitek lurrera. Ots... iru "teoria" omen ditugu arrien erortzeari buruz. Arriak, ordea, lurrera erortzen dira beti eta betidanik, eta goitik behera. Au ez da "teoria" bat; begiak idekitzea besterik ez da.

"Baña arriak goruntz erortzen dirala diotenak, eta ezkerretarakoak au erantzuten dute: "bada, arriak dira gaizki erortzen diranak..." Lehengo adibidera itzulita, "euskera" "s"kin esaten ba da, "gaizki esaten da". Zergatik? Neri "eguzkiaren" seta ori buruan finkatu zaidalako... Uso ondo".

Beraz, gure eztabaidaren iturria aurre-iritzi, apriorismu txatxu bat da: "Egiak "teoria"tzat euki, eta setak eta txorakeriak egiazat". Aurre-iritziak utzirik ikasi egin bear da: ikusi ta ikasi, ta ez asmatu ta irakatsi. Arriak goitik behera erortzen dira; ori da mundu ontako usadio bakarra, gainerakoak legez kanpoko irudimenkeriak ditugu. Euskeran ere berebat gertatzen zaigu: "Izkuntza batean usadioa dugu azken erabakitzaillea". Usadioak eman bear dizkigu teoria baterako datoak, ta ez Hegel'ena erantzun "gertakizunak nere filo-

sofiaren kontra daudela? Ba... or konpon gertakizunak". Ala ere, ez da usadioa soilik gure mai-xu.

Izkuntza guziak dute zerbait berezirik. Zenbait euskal-esakune ezin ditezke itzez-itzez erderatu: "Itzez-itzez ezin itzultze orixe, joskera berezi orixe", da gure jatortasuna. "Bi esaeratan jatorragoa da berezitasun geien duena". Ta berezitasun ba-dute erdal-sustraiak duten zenbait itzek ere: "gonbazio" ez da "comparación", "okasio" ez da "ocasión" ta abar.

Geienetan, jatortasuna desberdintasunak emango digu, ba.

Ta onetzaz ondore auek ateratzen ditu Txillardegik: Euskera zaarra ta sortaldekoa jatorragoak dira gaurkoa ta sartaldekoa baiño. Jatortasunak mailla auek ditu: Euskalki guzietako ta betiko esaera; gaur euskalki geienetan bizi dana; gaur gutxi, baiña noizbait zabaldua egon dana, eta, guzian ondoren, itz berriak.

Arkaismuez ere ba-diardu; aunitz aldiz, itz zaartzat jotzen ditugunak eraindik bizi dira, guk ez ezagutuarren. Gezurrezko eboluzioak ere ba-dira gaur, izkuntzak idazleari ez-baiña onek euskerari ezarri dizkionak. Izkuntzan logika ere ba-da, baiña ez ori bakarrik. Garbizalekeria ta mordoillozalekeria: biok ditugu "teoriak", arria batek ezkerrean, ta besteak eskubira erortzen "ikusten" dutenak.

Irizpide zuzen bakarra: USADIOA.

Euskera-batasunerako euskalki bat bear dugu oinarri izan dakigun. Jatorrena eta praktikuen artu bear genuke. Jatorrena xuberotarra da, baiña ez da praktikuen gertatzen, eta onegatik oneraxegoko euskalki bat aukeratzen du Txillardegik: Oartzun-Sara-Elizondo ingurukoa, Mendiburu ta Duvoisin gidaritzat dirala.

Deklinazioa Mendiburu'rena, Duvoisin'enaz osatuaz. Ez dago ezer asmatu bearrik. Aditzean beste oinbeste.

Joskera, Altube jaunak bere "Erderismos"ean

duena. Baiña beste era batzuei ere atera iriki bearko diegu, noski. "Zeren" ta senidoak oso eratuak dira Naparroa'n, Baxenabarre'n, Xuberoa'n eta Lapurdi'n eta euskaldun geiegi dira oiek kontuan ez eukitzeko. Beraz, Altube'k diona gidari, baiña Mendiburu-ta aaztu gabe. Sufijoak: dauzka-gunak nola ta noiz erabili diran ikasi bear dugu; ta noizbeinka kanpoko berrien bat artu ere bai: "ismo" ta "ista", adibidez.

ITZ BERRIAK. Idea zaarrak emateko ez dago ezer asmatu bearrik: ikasi egin bear da, ta idazle zaarrak ematen digutenaz baliatu. Idea berrientzat, berriz, iru bide aukera ditzazkegu:

1.- Itz zaarrei esanai berri bat eman. Aldapa labaiña auxe, egokitasuna gal baititeke berealakoan.

2.- Euskal itzez ta sufijoz, berriak moldatu. Ez da soluzio ain txarra; baiña idea zeazki, ta ez gutxi gora-beera, eman bear dute.

3.- Erderetatik artu. Euskal-itzez bere neurri juxtuan adierazi ez dezakegun idea, itz auen bidez aisa egin genezake. Baiña itz auk ez ditugu bestegabe artu bear, euskal-senaz jantzita baizik: "canónigo"tik "kalonje" jaio da. Euskerak ba-ditu bere fonetika legeak, ta auen arauz artu bear ditugu itz ok. Gai ontaz Euskaltzaindiak argitaratu bear luke irizpide sendo bat.

Ara, Txillardegik esaten dizkigun zenbait gauza jakingarri. Ba-du oraindik gauza eder geiagorik; baiña ez naiteke emen geiegi luza. Bai burutsua Txillardegiren lan au! Ba-da emen zer ikasi ta ausnarturik. Euskaltzale guztick ongi istudiatuko bagenu, bear bada leentxeago batuko giñake.

Ba-dut, ala ere, duda bat. "Zeren" ta kidekoak artu egin bear genituzkela diozu zure lanean. Arestian aitatu diguzun jatortasun-lege orrek ez ote digu eragozten? Egia esan, ba-liteke ncretzat eragozpenik aundiena neure gustoa izatea, nere belarriei benetan mingarri baitzaizkie era oiek. Gaitz au, ordea, erabilliak sendatzen du. Gaiñera au ez da arrazoa ta arazo auetan arrazoikiro jokatu bear dugu. Onegatik, puntu au,

apur bat bada ere, argi dezaiguzula eskatuko nizu-
ke. Oinbeste euskalkietan erabiltzea ez da noski
arrazoi kaxkarra; baina euskal-jatoritasuna ez ba-
lute -dirudienez, ez dira oiek berezitasun geiena
dutenak-, ez aal genuke jatorrago direnak sendotu,
ta besteak zokoratzen saiatu bear?

Intxausti'tar Joseba, ofm.
- Arantzazu'koa -

OARTU ONDO.

Azkenengo zenbakian auxe esa-
ten genizuen: "YAKINEN lenbiziko eta bigarren zen-
bakiak berriz ateratzera goaz asko baitira eska-
tzen digutenak."

Ez dizuet esan nai atzerantz
egin dugula, ezta egin nai dugula ere. Ez. Gauza-
txo bat bakarrik: la lenago ain sarri zenbaki
zaar oiek beren etxean eukitzea nai zutela esaten
zuten guziak lotara joan ote diran. Ez dakigu
nortzuk ziran; baina gutxi gora-beerako kontuetan
egingo nuke 70 bat ba-zirela. Gaur ordea, nai di-
tuztenak eskatzeko adieraztean, dozena ta erdi
exMax agertu zaizkigu. Eta jakina, atera nai di-
tugu, baina kostatzen dana pagatzeko jende gutxi-
gi ditugu amazazpi oiek.

Berriz, ba, jakiñarazten dizue-
gu zenbaki oiek (enkuadernatzeko edo kolezio osoa
eukitzeko edo...) artu nai dituzuen guziok esan
iguzue lenbaitlen.

Lendik eskatu datenei, Jainkoo-
rren, barkatu eta pazientzi pixkat. Azkenengoan
ez genuen esan atera genitula, askok uste izan
duen bezela, ateratzera goazela baizik.

Gaizki esanak barkatu eta gai-
nerantzean gaitezen guziok bat.

E'tar K. oim.
Arantzazu'koa

" EUSKAL - KULTURAREN ALDE "

"IPUI-SARIKETA"

Bazkun onek izendatutako epailleek, sariketa ontara eldutako ipuiak muetaka jartzeko egin bear zuten lana buruturik, ille onen lenengo egunean Miarritze'n izandako bilkuran, epaille oien iritzia ontzat artzea erabaki da. Beraz, pozik, emen argitaratzen ditugu, sariak irabazi dituzten ipuiak zeintzuk izan diran, bakoitzak ekarri duen izenordea eta beren egilleen izenak. Auetxek ditugu:

LENENGO SARIA (25.000 libera):

"Mendekoste gereziak" - "Ihizgorri" - Donapaleu'ko Etchepare'tar Jean jauna.

BIGARREN SARIA (15.000 libera):

"Goizeko Izarra" - "Arritokieta" - Durango'ko Eskauriatza'ren Azpeitia'tar Julene anderea.

IRUGARREN SARIA (10.000):

Sari ontarako, epailleen iritziz, bi ipui zeuden irabazteko gai neurri berean; orrengatik, sari au, bi ipui oien artean, erdibanatzea erabaki da. Auek ipuiok:

"Lupien bisita" - "Dena den" - Ustaritz'eko Minaberry'tar Marijane andereñoa. Eta:

"Puchka" - "John de Cize" - Donapaleu'ko Etchepare'tar Jean jauna.

Auek ziran eskeiñitako iru sariak. Gero, eta beti epailleen aburuz, beste amabi sari banatzea erabaki da, bakoitza milla liberako. Auetxek dira, bata naiz bestea onarturik, irabazi dutenak:

"Auntza baratzean" - "Arritokieta" - Durango'ko Eskauriatza'ren Azpeitia'tar Julene anderea.

"Inara" - "Emeki" - Ustaritz'eko Minaberry'tar Marijane andereñoa.

- "Hiru adichkideak" - "Dena den" - Ustaritz'eko
Minaberry'tar Marijane andereñoa.
- "Ave Maria" - "John de Cize" - Donapaleu'ko
Etchepare'tar Jean jauna.
- "Choria eta sugea" - "Dena den" - Ustaritz'eko
Minaberry'tar Marijane andereñoa.
- "Acheriaren ezteiak" - "John de Cize" - Dona-
paleu'ko Etchepare'tar Jean jauna.
- "Nimiño baten lokar-arazteko" - "Holachet" -
Ustaritz'eko Minaberry'tar Marijane andereñoa.
- "Txingurri nagia" - "Igotz" - Larrea'ko Aita
Santiago Onaindia.
- "Eskale txikia" - "Igotz" - Larrea'ko Aita
Santiago Onaindia.
- "Gauetz gau" - "John de Cize" - Donapaleu'ko
Etchepare'tar Jean jauna.
- "Donibane Garazi'ko laminak" - "Piarres Hegui-
toa" - Akize'ko Duny Pétré'tar Pierre jauna.
- "Katu abarkaduna" - "Amaren magalean" - Bue-
nos Aires'ko Muxika'tar Kintin jauna.

Miarritze'n, 1960'ko otsaillarren 4'n.

"Euskal-Kulturaren Alde" - Idazkaria.

- - - - -

DOMINGO AGIRRE NOBELA-SARIA. 1960

Bizkaiko Aho-
rro-Kaxak zortzi milla pezetako sari bat sortu du
Euskaltzaindiari lagunduz. Nobela-sariaren oiña-
rriak auek dira:

- a) Edozein euskalkitan idatzi ditezke no-
belak.
- b) Gaia nai dan bezelakoa izan diteke, eta
lanak nor berak egiña izan bear du eta ez beste
izkuntza batetik itzulia.
- d) Izkribuak makinaz idatzita bialdu bear
dira, alde bakar batetik eta lerro-une bat utzi-


rik, folio tamanuzko orrian (31,50 x 22 gutxi gora beera) gutxienez 150 folio dituala.

e) Sari bakar bat baizik ezta izango, zortzi milla pezetakoa eta zatitu ezina.

f) Saria, gabe gelditu diteke egoki iruditzen bazaien batzarrekoei.

g) Batzarrea Fizkai'ko Ahorro-Kaxak izendatuko du Euskaltzaindiaren eskabidez, lanak bialtzeko epea bukatu ondoren. Batzarrean Bizkai'ko Ahorro-Kaxaren ordezkari batek parte artuko du.

i) Lanak Euskaltzaindira bialdu bear dira (Ribera, 6 - Bilbao) 1960'ko. uztaillaren 20-a baino leen. Lema batekin firmatu bear dira, eta lemaren giltza sobre itxi batean bialdu bear da.



A R K I B I D E A

Ateak-zabalik 3

TEOLOGI-FILOSOFI-SAILLA

Zergatik siñisten dugu - Osa'tar Eusebi,
laterandarra 7

Lan-saria Aita Santuen erakutsietan - Oiar-
bide'tar Petri, sakramentinoa. . . 12

Filosofiaren muiña - Andonegi'tar Xabier, ofm.
Arantzazukoa 16

Eriotz-ondorengoaren berri - Iztueta'tar Pau-
lo, sakramentinoa. 24

Teresa deunaren irakatsiak - Sekundino A.,
karmeldarra. 33

Bergson'en problema - Azurmendi'tar Joxe, ofm.
Erri-Berri'koa 36

KULTURA-IAKINTZA-ANTZE

Oteitza'tar Gorka - Intxausti'tar Joseba,
Arantzazu'koa 43

Arte berri bat? - Oteitza'tar Gorka 47

Aurrerapena ixiltasunaren truke - Uranga'tar
Joan Joxe, sakramentinoa 53

Ibsen - Olaberria'tar Indefontxo, ofm., Erri-
-Berri'koa 60

Europa'ren batasuna - Saitza'tar Fernando,
sakramentinoa. 66

Georg Friederich Händel [1759-1959] - Laski-
bar'tar Yon, Arantzazukoa. 71

EZKARRIZKETA

Mitxelena-Elizalte jaunari biotzez-biotz -
Yon Etxaidetarra 77

YAKIN'i erantzuten - ORIXE. 82

EUSKERA'ren IV'gn. ateraldia dela-ta, - In-
txausti'tar Joseba, Arantzazu'koa. 86

Oartu ondo, 91

Ipui-sariketa'ren erabakia. 92

Domingo Agirre Nobela-saria 1960. 93

